Herri Arte Eskola Errenteriako (Gipuzkoa) udal eskola publikoa da, eta arte diziplina ezberdinetan eskaintza zabala du. Azken urteotan, hezkuntza-proiektua berritzen eta eguneratzen ari da, Musika eta Dantza Eskolatik Arte Eskolarako trantsizioa eginez. Horrela, aurrekoekin batera, Antzerkiak, Arte Plastikoak-Bisualek eta Hitzaren eremuak 5 adar artistiko osatzen dituzte, eta herritarrek 8 urtetik aurrera eta adin-mugarik gabe aukera ditzakete. Txikienen murgiltze-eredu gisa, 4-7 urteko ikasleentzat, Diziplina Anitzeko Hastapen Artistikoa izeneko proposamen pedagogikoa ere ezarrita du. Era berean, eskolak Musikako Ikasketa Profesionalak egiteko aukera eskaintzen du.

HAEko alboka-taldea Euskal Herriko alboka-talde nagusietako bat da 2021/2022 ikasturtean instrumentu hau eskolan ikasteko aukera eskaintzen hasi zenetik. Haritz Ezeiza gidari duelarik Atlantikaldia edota Musikaste jaialdietan, Euskal Herriko hainbat ospakizunetan eta atzerrian ere elkartruke kulturalak burutuz bere jarduna garatzen du.

Emanaldi honetarako **Hernaniko Herri Musika Elkarteko Txistulariak** gonbidatu dira. Talde honek Hernaniko txistularien bilgune izan eta herriko hamaika hitzordutan parte-hartuz instrumentu honen sustapena egitea du helburu.

Juan Mari Beltran Argiñenaren Doinuak

Herrikoia	<i>Jeiki, jeiki etchenkuak</i>
Herrikoia	<i>Mila zortzireun ta</i>
Juan Mari Beltran	<i>Martxa herrena - Sorgin etxean</i>
Pablo Sorozabal	<i>Contrapás</i>
Herrikoia	<i>Josetxo Olaberriko - Baratzeko pikuak</i>
J. M. Beltran / Herrikoia	<i>Orhiko xoria - Billantzikoa</i>
Juan Mari Beltran	<i>Zuretatik burnira - Arditurri</i>
Herrikoia	<i>Partida tristea ternuara - Polka</i>
Juan Mari Beltran	<i>Arratsaldeko eguzkia - Soinua geldituta (Alboka Sol)</i>
J. Romano / J. M. Beltran	<i>Rigodon (Lagun artean) - Jota / Porrusalda - Martxa</i>
Juan Mari Beltran	<i>Lo ametsetan - Fandango aparta</i>

Juan Mari Beltran, txalaparta, txirula, txistua, alboka, dultzaina, zarrabetea
Ander Barrenetxea, txalaparta, perkusioa, ahotsa, tronpa
Ana Errege Belda, akordeoia
Aitor Gabilondo, ahotsa
Herri Arte Eskolako Alboka Taldea
Hernaniko Herri Musika Elkarteko Txistulariak

Juan Mari Beltran - Ana Errege Belda, moldaketak
Haritz Ezeiza - Iñigo Arzallus, talde handira egokitzapenak

22

maiatza mayo

osteguna/jueves
19:00etan

Niessen Kulturgunea



Juan Mari Beltran

LANDARBASOKO DIZDIZKA ABESBATZA



2016ko apirilaren 24an, *Landarbaso Munduan I* proiektuan, Landarbaso Abesbatzaren baitan sortutako Landarbasoko Dizdizka gazte taldea aurkeztu zen. Gaur egun, taldea 16 eta 25 urte bitarteko 42 gaztek osatzen dute. 2018an lehen ekoizpena aurkeztu zituzten *Una tarde de cine* eta *Euskal Izpiak*. Hainbat jaialditan parte hartu ondoren, 2023an Gante Belgican Europa Cantat Juniorrera gonbidatua izan zen.

Honako hauek osatzen dute taldearen garaipen-zerrenda: Bigarren saria Fuensalidako Lehiaketa Nazionalean, Toledon, 2022an, bigarren saria Avileseko Abesbatzen Lehiaketan, Asturiasen, 2023an, eta 2024an bigarren saria Candaseko Habaneren Gazte Lehiaketan, Asturiasen, eta publikoaren saria eta bigarren saria Binissalemeko Abesbatzen Lehiaketan Mallorcan.

2023tik aurrera, Landarbaso Abesbatzak Landarbasoko Dizdizkarekin batera Lekuona Kultur Aretoan ospatzen den Gazte Topaketa Nazionala antolatzen du. Gazteei abesbatza musika hurbiltzea da talde honen helburu nagusienetakoa, eta horretarako formakuntza eman, konpromisoa landu eta orokorrean musikarako gogoia piztu eta sustatzea ditu ardatz.

El 24 de abril de 2016, en *Landarbaso Munduan I*, se presentó el grupo juvenil Landarbasoko Dizdizka, creado en el seno de Landarbaso Abesbatza. Actualmente el grupo está formado por 42 jóvenes en edades comprendidas entre los 16 y los 25 años. En 2018 presentan sus primeras producciones, *Una tarde de cine* y *Euskal Izpiak*. Tras participar en varios festivales, en 2023 es invitada al Europa Cantat Junior en Gante, Bélgica.

El palmarés del grupo comprende el Segundo premio del Certamen Nacional de Fuensalida, Toledo, en 2022, segundo premio en el Certamen Coral de Avilés, Asturias en 2023, en 2024 el segundo premio en Certamen Juvenil de Habaneras de Candas (Asturias) y el premio del público y segundo premio en el Certamen Coral de Binissalem, Mallorca.

Desde 2023, Landarbaso Abesbatza organiza el Encuentro Juvenil Nacional que se celebra con Landarbasoko Dizdizka en el centro cultural Lekuona. Acercar la música coral a los jóvenes, trabajando la formación, el compromiso y el placer de la música en general, es uno de los principales objetivos de este grupo.

KANTAKAI KORALA



Kantakai Korala 2013an sortu zen Musikaia Musika Eskolaren eskutik, abesteko eta abesbatzen mundua ezagutzeko gogoz zeuden dozena erdi hurrekin. Gutxinaka koristen bolumena handitzen hasi zen eta ondorioz ahots maila ezberdinetan abesteko aukerak handitu ziren.

Urte askotan prestakuntza eta ilusioaren ondoren, gaur egun 24 neska-mutilek osatzen dute korala eta zuzendaria Oihana Etxabe da. Ibilbide ez luze honetan, abesbatzak 25 kontzertu baino gehiagotan parte hartzeko aukera izan du bai herri mailan baita eskualde mailan ere.

Kantakai Korala surgió en 2013 de la mano de Musikaia Musika Eskola con media docena de niños y niñas con ganas de cantar y conocer el mundo coral. Poco a poco empezó a aumentar el volumen de los/as coristas, lo que hizo que incrementara las posibilidades de cantar en diferentes niveles vocales.

Tras muchos años de preparación e ilusión, hoy en día la coral está compuesta por 24 chicos y chicas y la directora es Oihana Etxabe. En esta no larga trayectoria, el coro ha tenido la oportunidad de participar en más de 25 conciertos tanto a nivel local como comarcal.

IGA ABESBATZA



15 eta 30 urte bitarteko gazteek osatzen duten abesbatza da, Eneko Amundarain Irastorzaren zuzendaritzapean. 2019an sortua, abenduan egin zuen bere debuta Irungo Anakako San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Hainbat erakunderekin elkarlan eta elkartasun kontzertuak ere egin dituzte, besteak beste, Harmonia Ederrean eta Musikaste Andra Mari abesbatzarekin; online kontzertua, Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartearekin batera; René Zugarramurdiko *Bidaia* proiektuaren parte-hartzea; *Udako Printzak* musika zikloaren lehenengo edizioaren klausura kontzertua; gabonetako kontzertua Landarbasoko Dizdizka-rekin; Náyade abesbatzako 25. urteurrenaren *Song of Universal* kontzertuan partaide; eta Verdiren Requiem-an Irungo beste abesbatzekin.

Halaber, Iga Abesbatzak konfinamenduan zehar eta honen ondoren, bere aktibitatea modu birtualean jarraitu zuen, bere sare sozialetan urrutiko entsegetan prestatzen zituzten lanak igoz. Aipatzekoa da, halaber, bideoak ez direla plataforma horietan soilik geratu, izan ere, horietako batzuk ETB1eko *Eztabaidan* saioan ageri ziren.

El coro está formado por jóvenes de entre 15 y 30 años, bajo la dirección de Eneko Amundarain Irastorza. Fundada en 2019, debutó en diciembre en la parroquia de San Juan Bautista de Anaka, en Irun.

También han realizado conciertos en colaboración con entidades como la Harmonia Ederrean y Musikaste junto con Andra Mari Abesbatza, concierto online junto con la Asociación Española Contra el Cáncer de Gipuzkoa, participación en el proyecto *Bidaia* de René Zugarramurdi, participación en la clausura de la primera edición del ciclo de música *Udako Printzak* de Azpeitia, concierto navideño junto a Landarbasoko Dizdizka, concierto *Song of Universal* por el 25 aniversario de Náyade Abesbatza y el Requiem de Verdi junto al resto de coros de Irun.

Pese al confinamiento por la Pandemia, Iga Abesbatza mantuvo su actividad a modo virtual, subiendo a sus redes las obras que se trabajaron en los ensayos online, siendo algunos de estos emitidos en el programa de *Eztabaidan* de ETB1.

CORO EUSKERIA DE LA SOCIEDAD CORAL DE BILBAO



1985ean sortu zen, Bilboko Koral Elkartearen haur-abetesatzaren eta koru sinfonikoaren arteko zubi-prestakuntza gisa. Euskeria Abesbatza 30 gaztek osatzen dute, eta aldakortasun eta konpromiso artistikoagatik nabarmentzen dira. 2007az geroztik, abesbatza Urko Sangronizek zuzentzen du, eta bere gidaritzapean nortasun propioa finkatu du gazteen artean. Euskeriak ekitaldi eta agertoki nabarmenetan parte hartu du, hala nola Bilbao BBK Live jaialdian, non rock abesbatzen bertsioen programa berritzaile bat aurkeztu zuen, edo 2018an Eskozian egin zuen biran, Saint Giles Katedralean eta Edinburgoko Queen 's Hallen kontzertuak emanez. 2019an Lehen Saria lortu zuen Ejea de los Caballeroseko 47. Abesbatza Lehiaketan, eta, ondorioz, Kantu Koralararen Sari Nazional Nagusirako sailkatu zen. Duela gutxi, *Ura Bere Bidean* bezalako proiektuetan parte hartu du, euskal musikaren berrinterpretazio sinfoniko-koraleko ikuskizun batean, eta *Madre Corajaren* ekoizpen eszenikoan Arriaga Antzokian, formatu sinfoniko zein teatraletan duen malgutasuna berretsiz.

Fundado en 1985 como formación puente entre el coro infantil y el coro sinfónico de la Sociedad Coral de Bilbao, el Coro Euskeria está integrado por 30 jóvenes que destacan por su versatilidad y compromiso artístico. Desde 2007, el coro está dirigido por Urko Sangroniz, bajo cuya batuta ha consolidado una identidad propia dentro del panorama coral joven. Euskeria ha participado en destacados eventos y escenarios, como el festival Bilbao BBK Live, donde presentó un innovador programa de versiones corales de rock, o su gira en Escocia en 2018, con conciertos en la Catedral de Saint Giles y el Queen's Hall de Edimburgo. En 2019 obtuvo el Primer Premio en el 47º Certamen Coral de Ejea de los Caballeros, lo que le valió su clasificación para el Gran Premio Nacional de Canto Coral. Recientemente, ha participado en proyectos como *Ura Bere Bidean*, un espectáculo de reinterpretación sinfónico-coral de música vasca, y en la producción escénica de *Madre Coraje* en el Teatro Arriaga, confirmando su flexibilidad tanto en formatos sinfónicos como teatrales.



Landarbasoko Dizdizka Abesbatza

Maddalen Dorronsoro, zuzendaria

Maddalen Dorronsoro	<i>Egunsentia*</i>
Herrikoia / Xabier Sarasola, mold.	<i>Basoilarra*</i>
Herrikoia / Xabier Sarasola, mold.	<i>Ene maitea*</i>
Junkal Guerrero	<i>Mutil txaleko gorri</i>
Iñaki Tolaretxipi / Aitor Albistur, hitzak	<i>Izpia da*</i>

*Erabateko estreinaldia

Kantakai Korala

Iker Azurmendi Alfonso, pianoa
 Gaizka Ansotegi Bengoetxea, perkusioa
 Oihana Etxabe Fernandez, zuzendaria

Herrikoia / Jabier Ituarte, mold.	<i>Bi itsas kantu</i>
Beverly Ross & Julius Dixon	<i>Lollipop</i>
José M. ^a Iparraguirre / Tomás Garbizu, mold.	<i>Zugana Manuela</i>
Izaro Andrés / Julia Iriondo, mold.	<i>Nora</i>

Iga Abesbatza

Eneko Amundarain, zuzendaria

Xabier Lete / Josu Elberdin, mold.	<i>Poeta horiek</i>
Luis de Aramburu	<i>Gaur akelarre Gorbeian</i>
Herrikoia / Julen Ezkurra, mold.	<i>Aritz adarrean - Katalin</i>
Ken Zazpi / Xabier Sarasola, mold.	<i>Itsasoa gara</i>

Coro Euskeria de la Sociedad Coral de Bilbao

Urko Sangroniz, zuzendaria

Herrikoia / José Antonio de Donostia, mold.	<i>Zeruan eder ilargia</i>
Herrikoia / José Antonio de Donostia, mold.	<i>Alduden gizonik ez</i>
Jose I. Ansorena / Xabier Sarasola, mold.	<i>Behin edo behin</i>
Herrikoia / Xabier Sarasola, mold.	<i>Arrosarik ez da - Dantza</i>

ANDRA MARI ABESBATZA



Erreterian 1966an José Luis Ansorenak (1928-2019) sortua, Andra Mari Abesbatzak koru musikan genero guztiak jorratzen ditu, euskal musikan espezializatua badago ere.

Gure herrian sortutako musika zaintzeko eta promozionatzeko beharrak zirela eta sortu zituen, José Luis Ansorenaren eskutik, 1973an Erreterian geroztik urtero egiten den Musikaste jaialdia eta, 1974an, berriz, Eresbil -Musikaren Euskal Artxiboa.

Bere ibilbidean nabarmentzekoak dira grabatu dituen hemeretzi diskoak, Estatuko jaialdi nagusienetan parte-hartzeak, eta hainbat orkestrekin emandako kontzertuak: besteak beste, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin, Bilbokoarekin, Espainiako Nazionalarekin, Tenerifekoarekin, Galiziakoarekin, Mahler Chamber Orkestrarekin, Frankfurt Irratiaren Orkestrarekin, Scottish Chamber Orkestrarekin... eta, beste askoren artean, M. Honeck, F. Brüggen, Ph. Herreweghe, J.J. Mena, A. Boreyko eta A. Orozco-Estrada, maisu handiek zuzenduta. Egun Andoni Sierra da erakundearen zuzendari artistikoa.

Fundada en Erreteria en 1966 por José Luis Ansorena (1928-2019), la Coral Andra Mari cultiva todo género de música coral, aunque su especialidad es la música vasca.

La necesidad de conservación y promoción de la música creada en nuestro país hizo que, bajo la dirección de José Luis Ansorena, en 1973, creara el festival de música vasca MUSIKASTE y, en 1974, ERESBIL -Archivo Vasco de la Música.

En su trayectoria destacan la grabación de diecinueve discos, su participación en los principales festivales del Estado y las colaboraciones con diferentes orquestas sinfónicas: Orquesta Sinfónica de Euskadi, Orquesta Sinfónica de Bilbao, Orquesta Sinfónica de Tenerife, Orquesta Sinfónica de Galicia, Madrid, Orquesta de Nacional de España, Mahler Chamber Orchestra, Radio Frankfurt, Scottish Chamber Orchestra..., bajo la dirección de maestros de la talla de M. Honeck, F. Brüggen, Ph. Herreweghe, J.J. Mena, A. Boreyko, o A. Orozco-Estrada, entre otros.

En la actualidad Andoni Sierra es el encargado de la dirección artística de esta entidad.

<https://www.andramariabesbatza.eus/>

EUSKADIKO ORKESTRA



Euskadiko Orkestra Musikasterekin duen hitzordura itzuli da eta edizio berri honekin 28. aldia izango du jaialdian parte hartzen. Denbora horretan orkestrak obra ugari interpretatu ditu, bere zuzendari titular askoren gidaritzapean eta abesbatzen eta bakarlariren laguntzaz, gure kulturaren aberastasunaren testigantza zabala utziz.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saisetik bultzatu eta garatua, Euskadiko Orkestra herrialde mailako orkestra da, oso exigentzia maila handikoa eta garai guztietako musika sinfonikoaren hedapenarekin konpromiso sendoa duena. Arreta berezia jartzen dio euskal musika sortzeari eta mundu osoan hedatzeari, nazioarteko bira ugarien eta grabazio diskografikoen banaketaren bidez. Maurice Raveli, Gabriel Erkorekari eta konpositore amerikarrei eskainitako azkenekoak, Ondine zigilupean erregistratuak, munduko kritikaren arreta erakartzen ari dira eta Euskadiko Orkestra ingurune espezializatuenean kokatzen.

Jarduera finkatu eta ondo egituratu baten bidez, orkestrak kontzertu-ziklo bana eskaintzen du Bilbon, Gasteizen, Donostian eta Iruñean eta ganbera-musikari eta haurrei zein familiei eta gazteei eskainitako beste bi ziklo egiten ditu. ABAO Bilbao Opera, Musika-Música, Musika Hamabostaldia, Zinemaldia, Ravel Jaialdia, Musikaste eta abarren denboraldietan ere parte hartzen du.

Euskadiko Orkestra vuelve a su cita con Musikaste y suma con esta nueva edición 28 años participando en el festival. Durante este tiempo la orquesta ha abordado un importante número de obras, bajo la batuta de muchos de sus directores titulares y acompañada de agrupaciones corales y solistas, dejando amplio testimonio de la riqueza de nuestra cultura.

Promovida y desarrollada desde el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, Euskadiko Orkestra es hoy una orquesta de país con un altísimo nivel de exigencia y firmemente comprometida con la difusión de la música sinfónica de todas las épocas. Atiende con especial énfasis la creación y expansión de la música vasca en todo el mundo a través de sus numerosas giras internacionales y de la distribución de grabaciones discográficas. Las últimas, dedicadas a Maurice Ravel, a Gabriel Erkoreka y a compositores americanos, registradas bajo el sello Ondine, están llamando la atención de la crítica mundial y posicionando a Euskadiko Orkestra en el entorno más especializado.

A través de una asentada y bien estructurada actividad, la orquesta actúa en cuatro ciclos de conciertos en Bilbao, Vitoria, San Sebastián y Pamplona, y celebra otros dos ciclos dedicados a la música de cámara y al público infantil, juvenil y familiar. Participa en la temporada de ABAO Bilbao Ópera, Musika-Música, Quincena Musical, Zinemaldia, Festival Ravel, Musikaste, etc.

DIEGO MARTIN-ETXEARRIA



2015ean Tokyoko Orkestra Zuzendaritzako Lehiaketa irabazi zuen. 2023ra arte Chemnitzeko Operaren Antzokiko Zuzendari Egoiliar Nagusia izan zen, eta Krefeld eta Mönchengladbach Antzokietako Zuzendari Egoiliar Nagusia ere izan zen.

Besteak beste, Osaka Philharmonic, Yomiuri Nippon Symphony, Nagoya Philharmonic, Osaka Symphony eta Kolonbiako Orkestra Sinfoniko Nazionalak gonbidatu dute.

24/25 denboraldian Espainiako hainbat eszenatokitan parte hartu du, bai Bilboko Orkestra Sinfonikorekin, Galiziako Real Filharmonia-rekin, Malagako Orkestra Filarmonikoarekin edo Espainiako Orkestra Nazionalarekin, bai operan, Oviedoko Espainiako Antzerki Lirikoaren Jaialdian *Doña Francisquita*rekin itzuliz eta Tenerifeko Operan Straussen *Ariadne auf Naxos*-en debuta eginez.

Operan Paul-Heinz Dittrichen *Die Verwandlung* eta *Die Blinden* zuzendu ditu Berliner Staatsoper-en, Pucciniren *La Bohème* Theater Augsburgen, Rita Berlingo Volksbühnen, Montsalvatgeren *El gato con botas* Madrilgo Errege Antzokian, Mozarten *Die Zauberflöte* Chemnitzeko antzokian. *Powder her face* Arriaga Antzokian, *Tres sombreros de copa* Zarzuela Antzokian, Verdiren *Nabucco*, Mascagniren *Cavalleria rusticana*, Kálmán-en *Die Fäschingsfee*, Offenbach-en *Orfeo en los Infiernos* eta Dvorak-en *Rusalka*, Wagnerren *Tristan und Isolde* eta Verdiren *Aida*.

Azken grabazioa SONYrekin egin zuen: *El lament de la terra*, Albert Guinovarten musikarekin, Bartzelonako Orkestra Sinfonikoarekin eta Kataluniako Orkestra Nazionalarekin.

Ganador del Concurso de Dirección de Orquesta de Tokyo en 2015. Principal Director Residente del Teatro de la Ópera de Chemnitz hasta 2023, y Principal Director Residente de los Teatros de Krefeld y Mönchengladbach.

Ha sido invitado por la Osaka Philharmonic, Yomiuri Nippon Symphony, Nagoya Philharmonic, Osaka Symphony, la Orquesta Sinfónica Nacional de Colombia, entre otras.

Durante la temporada 24/25 se intensificará su presencia en los escenarios españoles tanto en el ámbito sinfónico al frente de la Orquesta Sinfónica de Bilbao, Real Filharmonía de Galicia, Filarmónica de Málaga o la Orquesta Nacional de España, así como en ópera regresando al Festival de Teatro Lírico Español de Oviedo con *Doña Francisquita* y debutando en la Ópera de Tenerife con *Ariadne auf Naxos* de Strauss.

En ópera ha dirigido *Die Verwandlung* y *Die Blinden* de Paul-Heinz Dittrich en la Berliner Staatsoper, *La Bohème* de Puccini en el Theater Augsburg, *Rita* en el Volksbühne de Berlín, *El gato con botas* de Montsalvatge en el Teatro Real de Madrid, *Die Zauberflöte* de Mozart en el teatro de Chemnitz. *Powder her face* en el Teatro Arriaga, *Tres sombreros de copa* en el Teatro de la Zarzuela, *Nabucco* de Verdi, *Cavalleria rusticana* de Mascagni, *Die Fäschingsfee* de Kálmán, *Orfeo en los Infiernos* de Offenbach y *Rusalka* de Dvorak así como *Tristan und Isolde* de Wagner y *Aida* de Verdi.

Su última grabación fue con SONY *El lament de la terra* con música de Albert Guinovart con la Orquesta Sinfónica de Barcelona y Nacional de Cataluña.

24

maiatza
mayo

larunbata/sábado
19:00etan

Lekuona Fabrika

Eduardo Mocoroa *Iruko. Leidor* euskal operaren hiru zati sinfoniko
Sorgin hots. Leidor euskal operaren 1. Ekitaldiko zatia

Carlos Basurko *7341 - Concerto grosso n° 3**

Gabriel Loidi *Movimiento Sinfónico. El Caballero y el Dragón**

Jesús Guridi *Mirentxu*
1. Ekitaldiko II. eszena
1. Ekitaldiko X. eta XI. eszenak
2. Ekitaldiko X. eszena

*Erabateko estreinaldia

Andra Mari Abesbatza
Andoni Sierra, zuzendaria

Euskadiko Orkestra

Diego Martin Etxebarria, zuzendaria

Amaierako kontzertua
Concierto de clausura



Bi protagonista nagusi izango ditu kontzertu honek: musika klasikoaren pertsonaia entzutetsuenetako bat, Wolfgang Amadeus Mozart, eta bere arreba Maria Anna Mozart, hura ere konpositorea, baina zeinaren obra gehienak galdu egin diren historian barrena. Nannerl —Maria Annaren goitizena— berpiztu egingo da gure aurrean ezagutzera emateko eta gu bere anaiaren musikara hurbiltzeko. *Martxa turkiarraren* erritmora eta bere obrak musika-estilo ezberdinen bidez eraldatzeko jolasekin, haurrek deskubrituko dute Mozarten musika gaurkotetasun osokoa dela.

Uno de los personajes más ilustres de la música clásica, Wolfgang Amadeus Mozart, y su hermana Maria Anna Mozart, una compositora cuya música apenas ha llegado a nuestros tiempos, serán los protagonistas de este concierto. Nannerl, que es como se apodaba Maria Anna, volverá a la vida para darse a conocer y acercarnos a la música de su hermano. Al ritmo de la *Marcha turca* y mediante juegos de transformación de sus obras a diferentes estilos musicales, las/os niñas/os descubrirán que la música de Mozart es de rabiosa actualidad.

Mozart, Nannerl eta Lagunak

Wolfgang Amadeus Mozart

Klarinete eta harirako boskotea. I. Allegro

Serenata 13.zk. I. Allegro

Klarineterako kontzertua. II. Adagio

Pianorako 12. sonata. I. Allegro

Pianorako 11. sonata. III. Rondo: Alla Turca

Pianorako 12. sonata. II. Adagio

Lied 'Ah, vous dirai-je Maman' -en 12 bariazio. Tema / Bariazioak 1, 3, 7, 10 / Tema

Klarineterako kontzertua. III. Rondo: Allegro

Leopold Mozart

Nannerl-en koaderno

Larraitz Oiartzabal, biolina

Nathalie Dabadie, biolina

Justyna Janiak-Krymer, biola

Jon Larraz, biolontxelo

Sara Zufiaurre, klarineta

Pedro José Rodríguez, pianoa

Mónica Torres, aktorea

Euskadiko Orkestraren Musika Gelaren Ekoizpena

**EUSKADIKO
ORKESTRA**

ANDRÉS, Izaro
ANSORENA, Isidro
ANSORENA, Jose Ignazio
ARAMBURU, Luis de
AZURZA, David
BAFFALIO, Elodie
BASURKO, Carlos
BELTRAN ARGIÑENA, Juan Mari
BEOBIDE, José M.^a
BERNAOLA, Carmelo
DONOSTIA, José Antonio de
DORRONSORO, Maddalen
ELBERDIN, Jostu
ESCUDERO, Francisco
EZKURRA, Julen
FRANCO RIBATE, José
GARBIZU, Tomás
GARCÍA GOIZUETA, Eleuterio
GUERRERO, Junkal
GURIDI, Jesús
HUEGUN, Haizea
INCHAUSTI LARRAURI, Santos
IPARRAGUIRRE, José M.^a
IRIONDO URANGA, Julia
IRIZAR ARANBURU, Martin
IRIZAR ARANBURU, Pello

ITUARTE, Jabier
KEN ZAZPI
LABÉGUERIE, Michel
LAMBERT, Ekhi
LARRERA, Valentín
LERTXUNDI, Benito
LETE, Xabier
LOIDI, Gabriel
MOCOROA, Eduardo
OIARTZABAL, Joxemari
OLAIZOLA, Gabriel
ROMANO UGARTE, Julián María
SAINZ BASABE, José
SARASOLA, Xabier
SOROZABAL, Pablo
TOLARETXIPI, Iñaki
URTEAGA, Luis



MUSIKAGILFAK COMPOSITORES

ANDRÉS, Izaro

Mallabian jaio zen 1993an eta hamar urte daramatza abeslari eta konpositore gisa bere ibilbidea eraikitzen. Donostiako Deustuko Unibertsitatean Komunikazioa ikastera joan zenean, gitarra jotzen hasi zen. 2015eko urtarrilean *Paradise* lehen kantua Youtuben argitaratu zuen, eta Donostiako Zinemaldian estreinatutako *Pikadero* filmaren soinu-banda gisa erabili zuten. Handik aurrera, hainbat tabernatan kontzertu akustikoak ematen hasi zen. Kaliforniara joan zen ikasketak amaitzera eta bertan erabaki zuen musikaren aldeko apustua egitea, 2016an *Om* lehen diskoa kaleratuz. Lan horren ondoren iritsi ziren *Hankapuntetan I* (2017), *Eason* (2018), *Limones en invierno* (2020), *Limones de oro* (2022) eta *Cerodenero* (2023). 2020an *Nora* (Lara Izagirre) filmerako abesti ofiziala konposatu zuen eta 2022an *Limoiar ezitia* (2022) dokumentala zuzendu zuen. Azken diskoa, *Izaro Gabonetan*, 2024an aurkeztu zuen.

Nacida en Mallabia, lleva diez años construyendo su carrera como cantante y compositora. Al trasladarse a Donostia a estudiar Comunicación en la Universidad de Deusto, comenzó a tocar la guitarra. Publicó su primer tema *Paradise* en Youtube en enero de 2015, siendo utilizada como banda sonora de la película *Pikadero*, estrenada en el Festival de San Sebastián. A partir de entonces comenzó a actuar dando conciertos acústicos en diversos bares. Se trasladó a California para finalizar sus estudios y fue allí donde decidió apostar por la música, publicando su primer disco *Om* en 2016. Tras este trabajo llegaron *Hankapuntetan I* (2017), *Eason* (2018), *Limones en invierno* (2020), *Limones de oro* (2022) y *Cerodenero* (2023). En 2020 compuso la canción oficial para la película *Nora* (Lara Izagirre) y en 2022 dirigió el documental *Limoiar ezitia* (2022) del que también fue protagonista. Presentó su último disco *Izaro Gabonetan* en 2024.

ANSORENA, Isidro

1892an jaio zen Donostian. Lehen musika ikasketak Manuel Cendoyarekin, herriko organistarekin, hasi zituen. Txistua bere etxean ikasten hasi zen eta geroago Tolosako Juan José Cestonarekin ikasten jarraitu zuen, eta batez ere Teodoro Erauskinekin, Hernaniko txistulariarekin. 1910etik 1922ra Hernaniko Udal Txistulari Bandako lehen txistulari kargua bete zuen. 1922an Donostiako Udal Txistulari Bandako plazaren oposaketara aurkeztu zen eta irabazi zuen. Bertan eman zituen 40 urteetan lan handia egin zuen, eta ondorioz, 1962an, bere erretiroa zela eta, hiriaren Zilarrezko Domina eman zioten. 1927an sortu zen Euskal Herriko Txistularien Elkartearen sustatzaile eta eragile garrantzitsuenetakoa izan zen, eta horrezaz gain, ebanozko txistuak ere fabrikatzen zituen. Kontserbatorioan irakasle lanetan aritu zen, eta *Txistu, ots gozoa, nola?* metodoa idatzi zuen. Txistuko diskoen grabazioak egin zituen eta musika tresna horretarako 200 obra baino gehiago idatzi.

Nace en San Sebastián en 1892. Inició sus estudios musicales con Manuel Cendoya, organista del pueblo. Se inició en el manejo de txistu en su propio hogar, ampliando estudios con el txistulari de Tolosa Juan José Cestona, y sobre todo, con Teodoro Erauskin, txistulari de Hernani. Desde 1910 hasta 1922 ocupó el cargo de txistulari 1º de la Banda Municipal de Hernani. En 1922 se presentó y ganó las oposiciones convocadas para la plaza de Txistu de la Banda Municipal de Txistularis de San Sebastián. Desarrolló en ella una enorme labor a lo largo de 40 años, recibiendo en 1962 la Medalla de Plata de la ciudad, con motivo de su jubilación. Fue uno de los impulsores y motor de la Asociación de Txistularis del País Vasco, creada en 1927, además de fabricante de txistus de ébano. Creó escuela desde su cargo de enseñanza en el Conservatorio, escribiendo el método *Txistu, ots gozoa, nola?*. Se distinguió asimismo en la grabación de discos de Txistu y es autor de más de 200 obras para este instrumento.

ANSORENA, Jose Ignazio

Donostian jaio zen, 1953an, euskal musika tradizionalari lotua zegoen familia baten baitan. Bere aitona, Isidro Ansorena, izan zuen txistu-ikasle. Donostiako Musika Kontserbatorioan ikasi zuen, eta txistu katedradun eta zuzendari izatera iritsi zen. Filosofia eta Letretan ere lizentziaduna da. Kulturen hainbat arlotan garatu du bere sormen-lana. Euskal musika tradizioaren idazle, poeta eta ikertzailea da, eta *Euskal Kantutegi Herrikoia* argitaratu du. Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen hirukotearen sortzailea eta telebistako dinamizatzaile eta ekoizlea ere izan zen. Lehen Txistu Katedraren sustatzailea izan zen, instrumentuarentzako metodo progresivo baten egile ere bada, eta Donostiako Udal Txistulari Bandako instrumentista gailena izan da, 2023an erretiroa hartu zuena. Konpositore gisa, moldaketa eta konposizio ugari idatzi ditu, txistuarentzat batez ere.

Nace en San Sebastián en 1953, en el seno de una familia con tradicional dedicación a la música vasca. Fue alumno de txistu de su abuelo Isidro Ansorena. Estudió en el Conservatorio de música de Donostia, del que llegó a ser catedrático de txistu y director. Es también licenciado en Filosofía y Letras. Ha desarrollado su labor creativa en varios campos de la cultura. Es escritor, poeta e investigador de la tradición musical vasca, habiendo editado el *Cancionero Popular Vasco*. Es asimismo fundador del trío de payasos Txirri, Mirri eta Txiribiton, además de dinamizador y productor televisivo. Promotor de la primera cátedra de txistu, autor de un método progresivo para el instrumento y destacado instrumentista al frente de la Banda Municipal de Txistularis de San Sebastián, de la que se jubiló el pasado año 2023. Como compositor, ha escrito numerosos arreglos y composiciones propias, principalmente para dicho instrumento.

ARAMBURU, Luis de

Gasteizen jaio zen 1905ean. Musikagile, organista eta piano-jotzailea izan zen, eta bere aitarekin, Juan Santiagorekin, egin zituen lehen musika-ikasketak. Harmonia José Domingo de Santa Teresa jaunarekin ikasi zuen eta piano, organo, biolontxelo eta tronpa ikasketak Bilboko kontserbatorioan baliozkotu zituen. Abesbatzen munduari lotuta, San Migel Goiaingeruaren parrokia-abetesbatzaren zuzendaritza hartu zuen, eta lan hori Gasteizko beste abesbatza batzuen zuzendaritzarekin batera egin zuen, hala nola Eusko Abesbatzarekin (1934-1936), Vesa abesbatzarekin (1937-1938) eta Gasteizko Orfeoiarekin (1945-1953). Gasteizko Musika Kontserbatorioko piano irakaslea eta bertako zuzendaria izan zen 1974tik 1979ra. Urrezko Zeledon saria (1980), Gasteizko Urrezko Domina (1986) Euskal Herriko Txistularien Elkartea (1992), eta Sabino Arana Saria (1993) jaso zituen. Konpositore emankorra, aurkeztu izan zen konposizio lehiaketa guztietan saritua izan zen. Bere lanen zerrendan musika erlijiosoa da nagusi: 25 meza, 50 ereserki, moteteak, gabon-kantak, salmoak, etab. Baina erromantzak eta abesbatzarako obrak, 50 baino gehiago, txisturako musika, musika sinfonikoa eta talde instrumental ezberdinentzako beste obra asko ere idatzi zituen. Gasteizen hil zen 1999ko maiatzaren 5ean.

Nació en Vitoria-Gasteiz el 8 de enero de 1905. Compositor, organista y pianista, realizó sus primeros estudios musicales con su padre, Juan Santiago. Posteriormente estudió armonía con el P. José Domingo de Santa Teresa y convalidó sus estudios de piano, órgano, violonchelo y trompa en el Conservatorio de Bilbao. Vinculado al mundo coral, asumió la dirección del coro parroquial de San Miguel Arcángel y simultaneó dicha labor con la dirección de otras corales vitorianas como la Coral Eusko Abesbatza (1934-1936), los Coros Vesa (1937-1938) y el Orfeón Vitoriano (1945-1953). Fue profesor de piano en el Seminario Conciliar Diocesano y en el Conservatorio de Música de Vitoria, desempeñando el cargo de director del mismo desde 1974 hasta 1979. Fue galardonado con el Celedón de Oro (1980), con las Medallas de Oro de la Ciudad de Vitoria (1986) y la Asociación de Txistularis del País Vasco (1992), y con el Premio Sabino Arana (1993). Compositor prolífico, llegó a ser premiado en todos los concursos de composición a los que se presentó. Su lista de obras presenta un amplísimo predominio de música religiosa: 25 misas, 50 himnos, motetes, villancicos, salmos, etc. Pero también es autor de un gran fondo de romanzas y obras corales, más de 50, música para txistu, música sinfónica y otras obras para grupos instrumentales diversos. Falleció en Vitoria-Gasteiz el 5 de mayo de 1999.

AZURZA, David

Tolosan (Gipuzkoa) jaio zen 1968an. Arte Ederretan lizentziatua da eta kontratenore ikasketak Isabel Álvarezekin egin zituen. Madrilgo Goi Mailako Kontserbatorioan kantuko Lucrecia Arana saria jaso zuen. Capilla Peñaflorida, Kea, Conductus Ensembleko kidea da eta La Trulla de Bozes, Antigua Capilla Hispana edo Música Liberata bezalako ahots taldeekin kolaboratzen du.

Zenbait operen estreinaldi absolutu eta grabaziotan protagonista paperak izan ditu: Tomás Marcorena (2003), Mauricio Sotelorena (2006), Eduardo Pérez Masedarena (2006), José M^a Sánchez Verdúrena (2007), Luis de Pablarena (2010), Pilar Juradarena (2011) eta Juan José Eslavarena (2011).

Bere kabuz ikasi duen konpositorea da, ahotsetarako musikara mugatzen da bere lana gehien bat. Bere obrak ezagutzera emateko 2004 urtean Oihu hau argitaletxea sortu zuen, 80 obra baino gehiago editatu dituelarik: korurako moldaketak, bere konposizioak, ipuin musikalak eta ganberarako opera bat (*Altzoko Haundia, txikien opera*, 2011).

Nace en Tolosa (Gipuzkoa) en 1968. Licenciado en Bellas Artes. Se forma como contratenor con Isabel Álvarez. Premio extraordinario Lucrecia Arana de canto en el Conservatorio Superior de Madrid. Es miembro de la Capilla Peñaflorida, Kea, Conductus Ensemble y colabora con otros grupos vocales como La Trulla de Bozes, Antigua Capilla Hispana o Música Liberata.

Ha realizado y participado en diversos estrenos absolutos y primeras grabaciones de óperas contemporáneas de Tomás Marco (2003), Mauricio Sotelo (2006), Eduardo Pérez Maseda (2006), José M^a Sánchez Verdú (2007), Luis de Pablo (2010), Pilar Jurado (2011) y Juan José Eslava (2011).

Compositor autodidacta, su actividad se centra exclusivamente en el ámbito vocal. Más de 80 obras editadas, desde arreglos corales, composiciones propias, cuentos musicales y una ópera de cámara (*Altzoko Haundia, txikien opera*, 2011) en Oihu hau Musika, el sello editorial creado por él en 2004 para difundir su obra.

BAFFALIO, Elodie

1986an jaio zen Urdiñarben. 6 urte zituela hasi zen Mauleko Musika Eskolan pianoa ikasten, eta 16 urterekin Baionako Conservatoire Nord Maurice Ravelen matrikulatu zen. Bere musika ikasketak zabaltzeaz gain, baxu jarraia, harmonia, analisia eta musika garaikidea ere ikasi zituen. 19 urterekin, konposizioari ekitea erabaki zuen eta musika garaikideko klasean, Patrick Defossezen zuzendaritzapean, inprobisazioa landu zuen. Horrela, pianoa eta konposizioa batzeaz gain, bi diziplina horiek jarduera bakarrean uztartu zituen.

2007az gozotik, inprobisazio hainbat ikastaroetan parte hartu du, Joëlle Léandre, Evan Parker, Hélène Breschand edo Frédéric Blondy bezalako interpreteekin. Konposizioa eta orkestrazioa ikasten jarraitu zuen Pariseko Schola Cantorum-en. Kontzertuak eskaini ditu, bai bakarka, bai beste musikariek, hala nola Ronnie Lynn Patterson eta Vianney Desplantesekin. 2019an bere lehen diskoa argitaratu zuen, *Mellodi*, euskal kantu tradizioaletan oinarritua. Bere lehen konposizioa *Iazko Lorea* da.

Nació en Urdiñarbe en 1986. Comenzó a estudiar piano en la Escuela de Música de Maule a los 6 años y con 16 entró en el Conservatorio Norte Maurice Ravel de Baiona. Amplió sus estudios musicales estudiando bajo continuo, armonía, análisis y música contemporánea. A los 19 años dirigió su trayectoria hacia la composición. En la clase de música contemporánea, bajo la dirección de Patrick Defosse, comenzó con la improvisación y de esta manera pudo combinar tanto el piano como la composición en la misma actividad.

Desde 2007 ha participado en diversos cursos de improvisación libre con intérpretes de la talla de Joëlle Léandre, Evan Parker, Hélène Breschand o Frédéric Blondy. Al mismo tiempo, continuó estudiando composición y orquestación en la Schola Cantorum de París. Ha ofrecido conciertos tanto en solitario como con otros músicos como Ronnie Lynn Patterson y Vianney Desplantes. En 2019 publicó su primer disco, *Mellodi*, basado en el cancionero vasco. *Iazko Lorea* es su primera composición.

BASURKO, Carlos

1924ean jaio zen Donostian. Bertako Udal Kontserbatorioan ikasi zituen biolina, biola, harmonia eta konposizioa Figuerido eta Pagola irakasleekin. Pariseko kontserbatorioan osatu zituen ikasketak Messiaen-ekin, eta New York-eko Julliard Scholl of Music-en, Riete-rekin. Politikak arduratzen zuen, eta Gerrate Zibilean Frantziara ihes egin zuen bi urtez, eta gerra ostean Ameriketara joan zen euskal errefuxiatu gisa (lehenik Mexikora, eta New York-era ondoren). 1959an itzuli zenean Donostian finkatu zuen bizilekua eta konposizio-lanetan jardun zen. Biola-jotzailea izan da Mexikoko Orkestra Sinfonikoan eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoan, besteak beste, bai eta musika-kritikaria ere New Yorkeko This week eta Alba agerkerietan, Mexiko Hiriko Excelsior egunkarian, eta Diario Vascon.

Musikagintzan Zinemarako musika egiteagatik nabarmendu zen batez ere, genero honetarako 25 obra inguru idatzi baitzituen. Mexiko, Estatu Batuak, Frantzia eta Kubako produktoreentzat egin zuen lan, eta bere obrak New York, Chicago, Ibarqué (Kolombia), eta beste hainbat tokitako eszenatoki garrantzitsuetan interpretatu izan dira. Obra batzuk aipatzeko-tan, *String Quartet* (New York-en, 1953an estreinatua) *Trio, op. 6* (Chicagon, 1966an), *Jai-alai* balleta (1955) eta *Música para violas* (1966) dira garrantzitsuenak.

Nace en San Sebastián en 1924. Estudia en el Conservatorio Municipal de la ciudad violín, viola, armonía y composición con los profesores Figuerido y Pagola. Posteriormente amplía su formación con Messiaen en el Conservatorio de París y con Riete en el Julliard School of Music de New York. Persona de inquietudes políticas, durante la Guerra Civil se retira a Francia durante dos años, mientras que en la postguerra se exilia como refugiado vasco en América, primero en México y posteriormente en New York. Regresa en 1959, estableciéndose finalmente en Donostia, donde continúa entregado a la composición. Ha sido intérprete de viola en la Orquesta Sinfónica de México y en la Orquesta Sinfónica de Euskadi, entre otros, así como crítico musical en varias publicaciones como This Week y Alba de New York, el diario Excelsior de la ciudad de México o el Diario Vasco.

Como compositor se ha dedicado principalmente a la música cinematográfica, teniendo en su catálogo cerca de 25 obras del género. Ha trabajado para productores de países como México, Estados Unidos, Francia y Cuba, y muchas de sus obras han sido interpretadas en destacados escenarios de New York, Chicago, Ibarqué (Colombia), etc. Entre su producción musical hay que destacar las obras *String Quartet* (estrenada en New York, 1953) *Trio, op. 6* (Chicago, 1966), el ballet *Jai-alai* (1955) y *Música para violas* (1966).

BELTRAN ARGIÑENA, Juan Mari

Euskal musikaren erreferentzia nagusienetako bat da Manuel Lekuona sariak berriki aitortu dion gisan. Herri musikaren esparruan musikari, musikologo, konpositore, etnografo eta irakasle arituz nekaezin jardun da bizitza osoan zehar, eta hala ezin konta ahala ikerlari eta dibulgatzaile ildotan aritu da (liburu argitalpenak, ikus-entzunezkoak, grabaketak, Herri Musikaren Txokoa-Soinuenea espazioa...) baita doinu-sortzaile (hamarnaka disko argitaratu ditu) edota hezkuntzaren alorrean herri musika instrumentuen oinarri didaktikoak bilatu eta sustatuz. Azken urte luzeetan lauко taldean oholtzaratu da batik bat Ander Barrenetxea, Errege Belda eta Aitor Gabilondorekin batera.

Es una de las principales referencias de la música vasca como recientemente le ha reconocido el premio Manuel Lekuona. A lo largo de toda su vida ha ejercido incansablemente como músico, musicólogo, compositor, etnógrafo y profesor en el ámbito de la música popular, y así ha trabajado en innumerables líneas de investigación y divulgación (publicaciones de libros, audiovisuales, grabaciones, el espacio Herri Musikaren Txokoa-Soinuenea...), también componiendo melodías (ha publicado decenas de discos) o investigando y fomentando en el ámbito educativo las bases didácticas de los instrumentos musicales tradicionales. En los últimos años, ha actuado principalmente como parte de un cuarteto junto a Ander Barrenetxea, Errege Belda y Aitor Gabilondo.

BEOBIDE, José M.^a

Zumaian jaio zen 1882an. Lehen musika-ikasketak parrokiako organista zen Antonio Truebarekin egin zituen. Iruñan Samaniegorekin jarraitu zituen, eta gero Madrilgo Kontserbatorioan. 18 urte zituela, jesuitek irakasle eraman zuten Quitoko ikastetxera, Ekuadorrera, eta han hiriko kontserbatorioko solfeo-irakaslea (1902 eta 1906an), eta Jesusen Lagundiko elizako organista ere izan zen (1923). Estatu Batuetara joan zen osasun arazoak zituela-eta, eta handik itzuli zenean musika-eskolak eman zituen Barakaldon, eta El Escorialeko Alfontso XII.aren Errege Ikastegian. Aurrerago organista-plaza eskuratu zuen Burgoseko Mesedearen Ikastetxean. Orduan ezkondu egin zen, eta Burgosen lan egin izan urte askotan. 1930ean Iruñako Irakasle-eskolako musika-katedra irabazi zuen lehiaketan, eta Jesusen eta Mariaren elizako organista ere bazen garai hartan. 1940an Iruñako Musika-Akademiako irakasle izendatu zuten, eta 1957an, Pablo Sarasate kontserbatorio sortu berriko zuzendariorde. Musika erlijiosoa konposatu zuen batez ere, ahotserako nahiz organorakoa. Musika lirikoa ere egin zuen, *Los baños de Argel*, *La muñeca china*, *Miniatura mariana*, *Vieses*, *La batelera* eta *El último cartucho* zarzuelek erakusten dutenez. Gainera, Burgoseko, Salamanca eta Euskal Herriko herri-doinuak dotore harmonizatu zituen. José María Beobide Burgosen hil zen 1967an.

Nace en Zumaia en 1882. Inicia sus estudios musicales con el organista de la parroquia de su localidad natal, Antonio Trueba. Continúa su formación en Pamplona con Samaniego y posteriormente se traslada al Conservatorio de Madrid. A los 18 años los jesuitas le llevan como profesor al Colegio de Quito (Ecuador), donde fue además profesor de solfeo en el conservatorio de la ciudad (1902 y 1906), así como organista de la iglesia de la Compañía de Jesús (1923). Debido a problemas de salud se traslada a Estados Unidos. A su regreso, imparte clases de música en Baracaldo y en el Real Colegio de Alfonso XII de El Escorial. Posteriormente logra el puesto de organista del Colegio de la Merced de Burgos, donde contrae matrimonio y trabaja durante años. En 1930 gana por oposición la cátedra de música de la Escuela Normal de Magisterio en Pamplona, siendo además organista en la iglesia de Jesús y María. En 1940 es nombrado profesor de la Academia de Música pamplonesa y en 1957 subdirector del recién creado Conservatorio Pablo Sarasate. Destacó como compositor de música religiosa, tanto coral como organística, y tiene en su haber varias zarzuelas, como *Los baños de Argel*, *La muñeca de China*, *Miniatura mariana*, *Vieses*, *La batelera* o *El último cartucho*. José María Beobide falleció en Burgos en 1967.

BERNAOLA, Carmelo

1929an jaio zen Otxandion (Bizkaia). Medina de Pomar-en hasi zituen musika-ikasketak, eta gero Burgosen eta Madrilgo Kontserbatorioan sakondu zituen. Madrilen konposizioko lehen saria eta ezohiko saria irabazi zituen 1958an. 1959an, Erroma Saria irabazi zuen, eta bertan Petrassi eta Panni-rekin lan egin zuen; baita Maderna (Darmstadt-en) eta Celibidache, Tansman eta Jolivet-ekin ere.

1962an Sari Nazionala irabazi zuen eta 1967an Juventudes Musicales Saria. Errekonozimendu ugari jaso zituen: Musikkako Sari Nazionala, San Fernandoren Arte Ederretako Errege Akademiako Akademikoa izan zen, Madrilgo Udaletxeko Meritu Artistikoaren Domina jaso zuen eta baita Sabino Arana Saria ere.

Madrileko Kontserbatorioko irakaslea izan zen eta Gasteizeko Jesús Guridi Musika Eskolako zuzendaria. Kamera musika eta sinfonikoaz gain, irrati, telebista, antzerki eta zinemarako obra ugari idatzi zituen.

Madrilen zendu zen 2002ko ekainaren 5ean.

Nació en 1929 en Otxandio (Bizkaia). Comenzó sus estudios musicales en Medina de Pomar ampliándolos después en Burgos y en el Conservatorio de Madrid, en el que obtuvo el primer premio de composición y el premio extraordinario de composición en 1958. En 1959 ganó el Premio Roma, ciudad en la que trabajó con Petrassi y Panni. En Darmstadt trabajó con Maderna y participó en cursos impartidos por Celibidache, Tansman y Jolivet. En 1962 ganó el Premio Nacional y en 1967 el Premio Juventudes Musicales. Recibió numerosos reconocimientos: Premio Nacional de Música, fue Académico de la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando, recibió la Medalla al Mérito Artístico del Ayuntamiento de Madrid y el Premio Sabino Arana. Fue profesor del Conservatorio de Madrid y director de la Escuela de Música Jesús Guridi de Vitoria-Gasteiz. Además de música de cámara y sinfónica, escribió numerosas obras para radio, televisión, teatro y cine.

Falleció en Madrid el 5 de junio de 2002.

DONOSTIA, José Antonio de

Donostian jaio zen 1886an. José Gonzalo Zulaika Arregi izen laikoa zuen. Oso gaztetik euskal musikarengatik burutu zuen lan itzela zela medio, guztiek "Aita Donostia" deitzen zioten.

Ismael Echazarra izan zen bere lehenengo irakaslea Lekarozeko Ikastetxean. Bernardo de Gabiolarekin Donostian eta Adrià Esquerrá-rekin Bartzelonan sakondu zituen ikasketak. 1920an eta 1921ean, beregan eragin handia izan zuen Eugène Coolesekin ikasi zuen Parisen.

Teknika zaindu eta modernoz musika sakratuari arreta berezia eskaini bazion ere, orfeoiraiko euskal musikak eta pianorako *Euskal Preludioek* izan zuten arrakastarik handiena. Egin zituen lan etnomusikologikoengatik, euskal folkloarean eta beste hainbat gairen erakusle sakona bihurtu zen. Hamabi ale argitaratu dira bere musika-lanez eta beste 9 ale musika eta literatur-lanez, horien artean Cancionero vasco bilduma. Genero guztietako musika-lanak idatzi ditu eta horien artean Lied-partitura ugari sortu zituen katalanez, gaztelaniaz, frantsesez eta euskaraz. Lekarozen hil zen 1956 urtean.

Nació en 1886 en San Sebastián. Su nombre laico era José Gonzalo Zulaika Arregui. Merced a la gran tarea que realizó desde su juventud por la música vasca, pasó a ser nominado popularmente Aita Donostia. Tuvo como primer maestro de composición a Ismael Echazarra, durante su estancia de estudiante en el Colegio de Lecároz. Continuó estudios con Bernardo de Gabiola en San Sebastián y con Adrià Esquerrá en Barcelona. En 1920 y 1921 estudió en París con Eugène Cools, quien dejó en él una gran huella. Aunque prestó una atención especial a la composición de música sacra con una técnica depurada y moderna, se popularizaron más sus partituras orfeónicas vascas y sus *Preludios Vascos* para piano. Sus trabajos etnomusicológicos le convirtieron en un profundo expositor de teorías sobre el folklore vasco y otros temas musicológicos. Su obra musical ocupa doce tomos editados y su obra literario-musical abarca nueve tomos, en los que está incluido su Cancionero Vasco. Su patrimonio musical abarca todos los géneros y entre ellos compuso muchas partituras de Lied en catalán, castellano, francés y euskera. Falleció en Lecároz en 1956.

DORRONSORO, Maddalen

Lezon jaioa, Maddalen Dorronsorok bere lehen musika ikasketak sorterriko Tomas Garbizu Musika Eskolan egin zituen, biola eta kantuko ikasketak eginez. Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak antolatutako Abesbatza zuzendaritza ikastaroak egin ditu maisu handiekin eta Eusko Jaurlaitzak emandako Gaitasun Agiria du Musika eta Mugimendua (4-7 urte) eta Abesbatzan.

2005. urtetik Landarbaso Abesbatzan abesten du eta 2009az geroztik zuzendariaren laguntzaile lanetan ari da eta 2012tik aurrera ahots teknikako irakaslea eta arduraduna da.

Zuzendari lanetan Gipuzkoako zenbait talde eraman ditu, eta 2009 urteaz geroztik Oiartzungo Lartaun Abesbatzako zuzendaria ere bada. 2009tik 2016ra Easo Musika Eskolako Arazo Gaztetxo abesbatzako zuzendaria izan da eta 2016az geroztik Landarbasoko Dizdizka eta Kontari proiektuaren arduraduna da.

Nacida en Lezo, Maddalen Dorronsoro realizó sus primeros estudios musicales en la Escuela de Música Tomás Garbizu de su pueblo natal, en las especialidades de canto y viola. Ha realizado múltiples cursos de dirección coral organizados por la Federación de Coros del País Vasco y posee la Habilitación concedida por el Gobierno Vasco en Música y Movimiento (4-7 años) y Coro.

Canta desde al 2005 en Landarbaso Abesbatza, desde el 2009 es ayudante de dirección y a partir de 2012 es profesora y responsable del área de técnica vocal.

Ha dirigido varios coros Guipuzcoanos y desde el año 2009 dirige el Coro Lartaun de Oiartzun. Del 2009 al 2016 ha dirigido el coro infantil Arazo Gaztetxo de la Escuela de Música del Coro Easo y desde el 2016 es responsable de Dizdizka y Kontari de Landarbaso Abesbatza.

ELBERDIN, Josu

Pasaian (Gipuzkoa) jaio zen 1976an, eta bertako kontserbatorioan lortu zituen kantu eta piano irakasle tituluak. Era berean, Gizarte Hezkuntzan diplomatua da EHU. Hainbat abesbatzen zuzendaritzan aritzeaz gain, Pasaia Udal Musika Eskolako irakaslea da 2000. urtetik, eta Trintxerpeko Karmengo Andre Mariaren parrokiako organista 1991tik. Era berean, musika koralarekin lotutako ikastaroak ematen ditu, haur zein helduentzat, eta maiz epaimahaikide gisa aritzen da hainbat lehiaketa koraletan eta konposizioko lehiaketetan, bai nazio mailan, bai nazioartean. Konpositore gisa, sariak lortu ditu hainbat abesbatzen lehiaketetan, eta Tolosako Abesbatzen Lehiaketatik nahiz nazioarteko hainbat abesbatzen jaialdietako enkarguak ere jaso ditu. Bere musika, batez ere, haurren eremuan eta, oro har, musika koralean oinarritzen bada ere, obra sinfoniko, pop-rock edo instrumentalen ekoizpen garrantzitsua ere badu. Walton, Helbling eta CM Ediciones Musicales argitaletxeek argitaratu dituzte bere lanetako batzuk

Nace en Pasaia (Gipuzkoa) en 1976, en cuyo conservatorio obtiene los títulos de profesor de canto y piano. Es, a su vez, diplomado en Educación Social por la UPV. Además de dedicarse a la dirección de varios coros, es profesor de Escuela Municipal de Música de Pasaia desde el año 2000 y organista de la parroquia de N^ª Sra. del Carmen en Trintxerpe desde 1991. Asimismo, imparte de forma regular cursos relacionados con la música coral, tanto infantil como adulta, y ejerce asiduamente como jurado en diversos concursos corales y de composición tanto a nivel nacional como internacional. En su faceta como compositor ha obtenido premios en diversos concursos corales y ha recibido encargos tanto del Certamen de Masas Corales de Tolosa como de un progresivo número de corales y Festivales del panorama internacional. Si bien su música está fundamentalmente centrada en el ámbito infantil, y en general en la música coral, cuenta también con una importante producción de obras de carácter sinfónico, pop-rock o instrumental. Algunas de sus obras han sido publicadas por las editoriales Walton, Helbling y CM Ediciones Musicales.

ESCUADERO, Francisco

1912ko abuztuaren 13an jaio zen, Donostian. Udal Akademian eta Donostiako Kontserbatorioan hasi zituen musika-ikasketak Beltrán Pagolarekin. Konposizio-ikasketak Madrilén amaitu zituen, Conrado del Campo maisuaren gidaritzapean.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta San Fernando Arte Ederretako Errege Akademiaren diru-laguntzari esker, konposizioko eta orkestra-zuzendaritzako ikasketak sakondu zituen Frantzia eta Alemanian Paul Dukas, Le Flem eta W. Wolf maisuen zuzendaritzapean.

1945ean, Bilboko Misericordia Santuko musika-maisu eta Elkarte Koraleko zuzendari izendatu zuten. 1947an, Donostia-
ra etorri zen bizitzera eta bertako Udal Kontserbatorioko harmoniako eta konposizioko katedrak atera zituen.

1962an bertako zuzendari izendatu zuten, 1981 arte. Gero, 1983an erretiroa hartu zuen arte, harmoniako eta konposizioko katedretan aritu zen.

Lan pedagogiko handia burutzeaz gainera, sakontasun handiz landu du musika-konposizioaren arloa.

Bere-bereak dituzten ezaugarri bereziak eta mundu osoan ezagututako musika-lan ugari idatzi ditu, euskal musikaren historiarako oso garrantzitsuak guztiak. Zarautzen zendu zen, 2002ko ekainaren 7an.

Nace en San Sebastián el 13 de agosto de 1912. Inició sus estudios musicales en la Academia Municipal y en el Conservatorio Donostiarra, bajo la dirección de Beltrán Pagola. Los estudios de composición los terminó en Madrid, teniendo como maestro a Conrado del Campo. Con becas de la Diputación de Gipuzkoa y de la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando, perfeccionó la composición y la dirección orquestal en Francia y Alemania con los maestros Paul Dukas, Le Flem y W. Wolf.

En 1945 fue nombrado maestro de música de la Santa Misericordia y director de la Sociedad Coral, ambas de Bilbao.

En 1947 se instaló en San Sebastián, logrando este año la cátedra de armonía y composición del Conservatorio Municipal. En 1962 fue nombrado director del mismo, cargo que ejerció hasta 1981, limitándose desde entonces a su cátedra de armonía y composición hasta 1983, año de su jubilación.

Su gran tarea pedagógica ha estado acompañada de una profunda entrega a la composición musical. Es autor de una importante lista de obras transcendentales en la historia de la música vasca, de características propias inconfundibles y aceptación universal.

Falleció en Zarautz el 7 de junio de 2002.

EZKURRA, Julen

1930ean jaio zen Izarran. Rodrigo A. de Santiagorekin egin zituen lehenengo musika ikasketak eta harmoniakoak Enrique Villalbarekin, Valladoliden. Perun egonaldi bat egin ondoren, 1963 eta 1966 bitartean Paris eta Erroman sakondu zituen musika ikasketak. Liturgia Musikarako Idazkaritza Nazionaleko kide izan zen eta liturgiaren musika berritzeko lan handia egin zuen. 1974an Bilbora bidali zuten. 1977an Euskal Herriko Unibertsitateko Korua sortu zuen eta bertako zuzendari izan zen 1999an erretiroa hartu zuen arte. Liturgia berrirako lanak sortzeaz gain, Amerikako eta euskal folklorean oinarritutako korurako musika asko egin zuen, eta baita bi kantata koral ere.

Nace en Izarra en 1930. Realiza sus primeros estudios musicales con Rodrigo A. de Santiago y armonía con Enrique Villalba en Valladolid. Tras un período en el Perú, amplía estudios musicales entre 1963 y 1966 en París y Roma. Perteneció al Secretariado Nacional de Música Litúrgica, realizando una importante labor de renovación de la liturgia musical. Trasladado a Bilbao en 1974, funda el Coro de la Universidad del País Vasco el año 1977, del que es director hasta su jubilación en el año 1999. Es autor, además de las piezas para la nueva liturgia, de un buen número de música coral, parte de ella basada en los folklores americano y vasco, así como de dos cantatas corales.

FRANCO RIBATE, José

Cariñenan (Aragoi) jaio zen 1878an. Harmonia, konposizioa eta klarinetea Ramon Borobiarekin ikasi zituen Zaragozan. Oso gazte zela bere familia Bilbora joan zen bizitzera, eta han Langileen Patronatuko Txaranga zuzentzen hasi zen. 1902an Bermeoko Bandako Zuzendari kargua lortu zuen oposizioz, Irungo Udal Bandako zuzendariarekin (1915ean lortu zuen) eta Bilboko Udal Bandakoarekin (1918an) bateragarri eginez. 1920an, Bizkaiko Musika Akademiatik Kontserbatoriora aldatu zenean, José Franco harmoniako irakasle sartu zen, eta hogeita hamar urtez egon zen bertan. Konpositore gisa sari ugari lortu zituen: 1910ean, Euskal Jaietako Saria, *Euskal-erriko kantak* kalejirarekin, eta, 1917an, Madrilgo Musika aldizkariak deitutakoa, *Arrantzaliak* lan sinfonikoarekin. Nagusiki, bandarako konposizioen egilea da. Bilbon hil zen 1951n..

Nació en Cariñena (Aragón) en 1878. Estudió armonía y composición con Ramón Borobia en Zaragoza, además del clarinete. Siendo muy joven su familia se trasladó a Bilbao, donde comenzó a dirigir la Charanga del Patronato de Obreros. Logró por oposición el cargo de Director de la Banda de Bermeo en 1902, compatibilizándolo con el de la Banda Municipal de Irún, que logra en 1915, y el de la Banda Municipal de Bilbao, en 1918. En 1920, con el cambio de Academia Vizcaína de Música a Conservatorio, José Franco ingresó como profesor de armonía, puesto en el que permaneció durante treinta años. Como compositor logró repetidos premios: en 1910, el Premio en las Fiestas Euskaras con el pasacalle *Euskal-erriko kantak* y, en 1917, el convocado por la revista Música de Madrid, con su obra sinfónica *Arrantzaliak*. Es principalmente autor de composiciones para banda. Falleció en Bilbao el año 1951.

GARBIZU, Tomás

Lezon jaio zen 1901eko irailaren 12an. Bere herriko parrokiako koruan abestu zuen haurra zelarik. Anaia Joseren eskutik hasi zen pianoan, apaiza baitzen. Urte batzuk Arantzazuko seminarioan ikasi zuen, Garbizuren bihotzean arrasto handia utzi zuena. Ondoren, Donostiako Kontserbatoriora joan zen, eta han José M.^a Iraola eta Beltrán Pagola izan zituen irakasle. Haiekin pianoa eta harmonia ikasi zituen, hurrenez hurren. Organo ikasketak egin zituen Madrilgo Kontserbatorioan eta, geroago, Parisen, Charles Leboutekin. Madrilgo Enbaxada Frantsesaren organista ofiziala izan zen. 1954tik Donostiako Kontserbatorioan organo katedra bete zuen erretiroa hartu zuen arte. Tomás Garbizu musikagilea zen interpretea baino gehiago. Honenbestez, mota guztietako lanen funts handia utzi digu: musika erlijioso ugari, euskal musika korala, txisturako, liederako, pianorako, organorako, ganbera-musikarako, oratorioetarako, zarzuelarako eta abarretarako. 2018az geroztik, ERESBILek musika artxibo eta liburutegia gordetzen ditu. Bere katalogoan *Missa Benedicta* eta beste meza batzuk, moteteak eta musika liturgikoko piezak, *Jesús y la samaritana (Tríptico al Buen Pastor)* eta organorako beste lan batzuk, korurako euskal gaiak eta ez euskaldunei buruzko piezen zerrenda luzea, *Babilon beltza*, *Osanbela (Baso Jaun)*, *Danos la paz*, *Aloña* eta abar daude. Donostian hil zen 1989ko azaroaren 27an.

Nació en Lezo el 12 de septiembre de 1901. Fue niño de coro en su parroquia. Se inició en el piano de la mano de su hermano José, sacerdote. Estudió algunos años en el Seminario de Aránzazu, que dejó una gran huella en el corazón de Garbizu. Después pasó al Conservatorio de San Sebastián, donde tuvo como profesores a José M.^a Iraola y Beltrán Pagola, con quienes estudió piano y armonía, respectivamente. Amplió estudios de órgano en el Conservatorio de Madrid y, más tarde, en París con Charles Lebout. Fue organista oficial en la Embajada Francesa en Madrid. Desde 1954 desempeñó la cátedra de órgano en el Conservatorio de San Sebastián hasta su jubilación, promocionando importantes discípulos. Tomás Garbizu era más compositor que intérprete. Así es como nos ha legado un gran fondo de obras de todo género: abundante música religiosa, música coral vasca, para txistu, lied, piano, órgano, música de cámara, oratorios, zarzuela, etc. Desde el año 2018 ERESBIL conserva su archivo y biblioteca musical. Su catálogo incluye la *Missa Benedicta* y otras misas, motetes y piezas de música litúrgica, *Jesús y la samaritana (Tríptico al Buen Pastor)* y otras obras para órgano, una larga lista de piezas sobre temas vascos y no vascos para coro, los poemas sinfónicos *Babilon beltza*, *Osanbela (Baso Jaun)*, *Danos la paz*, *Aloña*, etc. Falleció en San Sebastián el 27 de noviembre de 1989.

GARCÍA GOIZUETA, Eleuterio

Iruñean jaioa, 1894-95 ikasturtean Donostiako Musika Akademiako solfeo irakasleetako bat bezala ageri da. Donostiako Udal Musika Bandako fliskorno bakarlaria izan zen. 1907an, Hernaniko Udal Banda eta Akademiako zuzendari plaza eskuratzeko aurkeztu zen, eta 1913ko urtarrilean Haroko Udal Bandako zuzendari izendatu zuten. Urte bereko abuztura arte jardun zuen karguan, osasun arazoengatik utzi zuen arte. Donostiako Francisco Escudero Goi Mailako Musika Kontserbatorioko artxiboan haren sinadura daramaten hainbat konposizio gordetzen dira.

Nacido en Pamplona, en el curso 1894-95 consta como uno de los profesores de solfeo de la Academia de Música de San Sebastián. Fue fliscorno solista en la Banda Municipal de Música de San Sebastián. En 1907 se presentó a la plaza de director de la Banda Municipal y Academia de Hernani y en enero de 1913 fue nombrado director de la Banda Municipal de Haro. Ejerció hasta agosto de ese mismo año cuando dejó el puesto por problemas de salud.

Se conservan en el archivo del Conservatorio Profesional de Música Francisco Escudero de Donostia varias composiciones con su firma.

GUERRERO, Junkal

Andoainen jaio zen 1968an. Donostiako Kontserbatorioan Solfeo, Piano, Klabe, Musikaren Pedagogia eta Koru Zuzendaritza ikasketak egin zituen. 1995etik 2007ra Javier Bustoren zuzendaritzapean KCK-ko (Kanta Cantemus Korua) kide izateak eragin handia izan zuen formazioko nahiz koruko ibilbidean. Gaur egun, Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorio Profesionalean piano-irakasle da, eta zeregin hori zuzendaritza eta korurako konposizio lanekin uztartzen du. 2008tik Luberri Abesbatzako zuzendaria da, eta 2012tik Loinatz Abesbatzako. Berak sortutako *Bi bihotz* lana, 2007ko Tolosako Haur Abesbatzen Lehiaketan derrigorrezkoa izan zen, eta *Kalera gazteak* 2011koan. Kantika Korala, Landarbaso Abesbatza, Ganbara Txiki abesbatza eta Unanue kamara koralerako obrak sortu ditu enkarguz.

Musikasteren aurtengo edizioan bere *Arimen besarkadan* (Requiem) obra estreinatuko da, Covid-19ren pandemiaren garaian abesbatza, bakarlaria eta organoarentzat idatzia, eta Erreterriako Andra Mari Abesbatzak eskatua. Haren obrak www.cm-ediciones.com argitaratu ohi ditu.

Nacida en Andoain, Gipuzkoa, en 1968. Es titulada superior en solfeo, piano, clave, pedagogía musical y dirección de coros por el Conservatorio Superior de San Sebastián. La experiencia vivida desde 1995 a 2007 como componente de KCK bajo la dirección de Javier Bustos ha dejado una huella imborrable en su formación y trayectoria coral. Actualmente compagina su labor docente como profesora de piano en el Conservatorio Profesional Francisco Escudero con la dirección y composición coral. Es directora de Luberri Abesbatza desde 2008 y de Loinatz Abesbatza desde 2012. Su composición *Bi bihotz* fue obra obligada del Certamen Coral Infantil de Tolosa 2007 y *Kalera gazteak* del de 2011. Ha escrito por encargo para Kantika Korala, Landarbaso Abesbatza, Ganbara Txiki Abesbatza o Unanue Kamara Korala.

En la presente edición de Musikaste estaremos su obra *Arimen besarkadan* (Requiem) escrita durante la pandemia de la Covid-19 para coro, solistas y órgano, y encargada por la coral Andra Mari Abesbatza de Erreterria. Sus obras están editadas en la editorial Cm-ediciones (www.cm-ediciones.com).

<http://jungalguerrero.wordpress.com/>

GURIDI, Jesús

Gasteizen jaio zen, 1886an. Madrilen burutu zituen musika-ikasketak. Gerora, Bilbon jarraitu zituen Sainz Basaberekin, eta Pariseko Schola Cantorumen, Vincent d'Indyarekin; Bruselan, Joseph Jongenekin eta Kolonian Otto Neitzelekin sakondu zituen. 1912az geroztik, Bilboko Koru Elkarteko zuzendaria izan zen eta musikagile etapa oparoari ekin zion musika genero guztiak landuz: koruentzako musika erlijiosoak, organorako musika, orfeoirako musika, ganbera-musika (harizko laukote bi), musika sinfonikoa (*Sinfonia pirenaica, Homenaje a Walt Disney*), lirikoa (*Mirentxu, Amaia, El Caserío, Mari-Eli, Peñamariana...*), zinerako musika, etab. 1939an, Madrila joan zen bizitzera. Organo Katedraduna izan zen Madrileko Goi-mailako Kontserbatorioan, eta 1956az geroztik bertako zuzendaria, 1961ean zendu zen arte.

Nació en 1886 en Vitoria-Gasteiz. Hizo sus primeros estudios musicales en Madrid. Los continuó en Bilbao con Sainz Basabe y amplió en la Schola Cantorum de París con Vincent d'Indy y, más tarde, en Bruselas con Joseph Jongen y Colonia con Otto Neitzel. Desde 1912 fue director de la Sociedad Coral de Bilbao e inició una brillante etapa de compositor, escribiendo en todos los géneros: música religiosa, para coros, órgano, orfeónica, música de cámara (dos cuartetos de cuerda), sinfónica (*Sinfonía Pirenaica, Homenaje a Walt Disney*), lírica (*Mirentxu, Amaya, El Caserío, Mari-Eli, Peñamariana...*), música de cine, etc. En 1939 fijó su residencia en Madrid. Desempeñó la cátedra de órgano en el Real Conservatorio, del que fue director desde 1956 hasta su muerte en 1961.

<http://www.eresbil.com/web/guridi/>

HUEGUN, Haizea

Zarautzen jaio zen 1996an. 12 urterekin hasi zituen piano ikasketak, eta hiru urte geroago Javier González Sarmiento pianista eta konpositorearen eskolak jasotzen hasi zen. 2015ean hasi zituen musika konposizioko ikasketak Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioan.

Bere lehen ikus-entzunezko proiektua 2019an iritsi zen, *Zauriak* dokumentalerako soinu-banda sortzeko enkarguarekin. Urte berean *Sua – Irabazi arte* telesailaren musika ere konposatu zuen. 2021ean, finalista izan zen Bruno Maderna Nazioarteko Konpositore Lehiaketan (Ukraina), *Walks in the Forest* izeneko lanarekin.

2022an, Aitor Etxebarriaren Gernika 85 obra sinfoniko-korala orkestratu zuen, eta Musika Bulegoaren *Soinua Iratzarri* proiektuan parte hartu zuen urte berean.

Gaur egun, konposizioarekin eta musika-ikerketzarekin lotutako proiektu desberdinetan ari da lanean, eta piano eta konposizio eskolak ematen ditu Donostiako Ahaire Musika Akademan, berak 2020an sortu zuen ikastetxean.

Nació en Zarautz en 1996. Comenzó sus estudios de piano a los 12 años y tres años más tarde comenzó a recibir clases del pianista y compositor Javier González Sarmiento. En 2015 inició sus estudios de composición musical en el Conservatorio Superior de Navarra.

Su primer proyecto audiovisual llegó en 2019 con el encargo para componer la banda sonora del documental *Zauriak* y el mismo año compuso la música para *Sua-Irabazi arte*. En 2021 fue finalista en el Concurso Internacional de Compositores Bruno Maderna (Ucrania) con el trabajo *Walks in the forest*. Huegun fue la encargada de orquestar la obra sinfónica coral *Gernika 85* de Aitor Etxebarria (2022) y participó en el proyecto *Soinua Iratzarri* (2022) de Musika Bulegoa. Actualmente trabaja en diversos proyectos relacionados con la composición e investigación musical, e imparte clases de piano y composición en Ahaire Musika Akademia (Donostia), estudio que fundó en 2020.

INCHAUSTI LARRAURI, Santos

Mungian jaio zen 1868an. Bere aita Julian Inchaustiri esker hasi zen musikan, zurrenik. Inchausti bere jaioterriko organista zen. Bere formazio musikalaria buruzko informaziorik ez badago ere, 1896an Mungiako Orfeoiaren sorrera egozten zaio. Bi urte geroago Bilboko Koral Elkarteko zuzendariorde izendatu zuten. Euskalerrria Elkarteko abesbatzako eta Euskal Gazteriaren Abesbatzako zuzendaria ere izan zen. Musika irakasle aritu zen 1912tik aurrera, urte horretan Bilboko Udalak musika-ikaskuntza sustatu baitzuen eskoletan.

Euskal jaien hainbat ediziotan parte hartu zuen, Bergaran *Machín* (1905) eta Donostian *Nora zoaz* (1906) abestiekin sariak lortu zituen. Hainbat genero landu zituen, baina bereziki eza-guna izan zen bandarako eta txisturako konposizioengatik eta euskal operaren garapenari egindako ekarpenekin, *Lide ta Ixidor* (1909) eta *Itxasondoren* (1910) obrei esker.

Nacido en Mungia en 1868. Sus inicios en la música se dieron, probablemente, gracias a su padre, Julián Inchausti, que era organista de su pueblo natal. Si bien no hay información sobre su formación musical, se le atribuye la creación del Orfeón de Mungia en 1896. Dos años más tarde fue nombrado subdirector de la Sociedad Coral de Bilbao. Fue también director del coro de la Sociedad Euskalerrria y del Coro de la Juventud Vasca. Ejerció como profesor de música a partir de 1912, año en el que el Ayuntamiento de Bilbao promovió el aprendizaje musical en las escuelas.

Participó en varias ediciones de las fiestas euskaras, logrando premios en Bergara por *Machín* (1905) y en Donostia con *Nora zoaz* (1906). Su obra abarcó varios géneros, aunque fue especialmente conocido por sus composiciones para banda y para txistu y su contribución al desarrollo de la ópera vasca con la composición de *Lide ta Ixidor* (1909) e *Itxasondo* (1910).

IPARRAGUIRRE, José M.^a

Urretxun jaio zen, 1820an. Zerainen osaba batekin gaztelania eta gramatika ikasi ondoren, Gasteizera joan zen latina ikastera. Hamahiru urte zituela, Madrilera joan zen familia osoa. 1933an etxetik ihes egin eta karlisten lerroetara sartu zen lehen karlistaldia zela eta. Garai horretan litekeena da gitarra jotzen hastea, bere bizitzan zehar lagun izango zuen instrumentua. Borroka amaitu ondoren, Frantziara joan zen, eta, beranduago, Tirolera, non Caroline Duprez sopranoa ezagutu zuen, hari kantu eskolak emateko prest zegoena. Ondoren, Europan zehar berarekin emanaldiak eskaintzen ibili zen. Frantzian, *La Marsellesa* abestean sortzen zituen zalapartak zirela eta, herrialdetik bota egin zuten. 1851n Londresera iritsi zen, Italiako konpainia liriko bateko kide izanik. 1852an Euskal Herrira itzuli zen eta 1853an Madrilen geratu zen; ordukoa da hark idatzitako *Gernikako Arbola* kantua, ereserki bilakatuta, haren obrarik interpretatuena. 1858an Ameriketara emigraztea erabaki zuen, hasiera batean Buenos Airesen bizi izan zen, eta gero Uruguaira joan zen non artzain bezala hainbat arrantxotan bizi izan zen. Pobrezian urte batzuk igaro ondoren, 1877an Euskal Herrira itzuli zen, eta euskal kulturaren sinbolotzat hartu zuten. Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Aldundietatik pentsio bat jaso zuen, Itsason (Gipuzkoa) pulmonia baten ondorioz hil aurretik. Hogeitabat doinu aitortzen zaizkio, eta horietako asko herrikoi bihurtu dira. XIX. eta XX. mendeetako hainbat autorek *Adio Euskal-Erriari*, *Ara nun diran*, *Ume eder bat* edo *Zugana Manuela* doinuak erabili izan dituzte pianorako, kanturako eta pianorako, korurako edo hainbat instrumentu-talderentzako moldaketak eta harmonizazioak egiteko.

Nace en Villareal de Urrechua, hoy Urretxu, en 1820. Tras aprender castellano y gramática con un tío suyo en Zerain, se mudó a Vitoria para aprender latín, y con trece años se trasladó toda su familia a Madrid. En 1933 se escapó de casa y se alistó a las filas carlistas con ocasión de la primera carlistada. En esta época es probable que se iniciara en la guitarra, un instrumento que le acompañaría a lo largo de su vida. Terminada la contienda se trasladó a Francia y más tarde al Tirol, donde debió de conocer a la soprano Caroline Duprez que se ofreció a impartirle clases de canto y con quien recorrería después parte de Europa. En Francia y con ocasión de los tumultos que ocasionaba al cantar en público *La Marsellesa*, fue expulsado del país. En 1851 llegó a Londres, formando parte de una compañía lírica italiana. En 1852 regresa al País Vasco y en 1853 se encuentra en Madrid, fecha en la que se suele datar la composición de su melodía más interpretada, una vez convertida en himno, el *Gernikako Arbola*. En 1858 decidió emigrar a América, instalándose inicialmente en Buenos Aires, para pasar al Uruguay, donde residió en diversos ranchos como pastor. Tras pasar varios años de penuria, en 1877 regresa al País Vasco, siendo recibido como un símbolo de la cultura vasca. Recibió una pensión por parte de las Diputaciones de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya poco antes de que, a consecuencias de una pulmonía, falleciera en la localidad guipuzcoana de Itsaso. Se le reconocen una veintena de melodías, gran parte de las cuales se han convertido en populares. Diversos autores de los siglos XIX y XX se han servido de melodías como *Adio Euskal-Erriari*, *Ara nun diran*, *Ume eder bat* o *Zugana Manuela*, para realizar arreglos y armonizaciones para piano, canto y piano, coro o diversos conjuntos instrumentales.

IRIONDO URANGA, Julia

IRIONDO URANGA, Julia

Mutrikun sortutako musikaria. Akordeoiko ikasketak egin eta gero, Mutrikuko Udal Musika Eskolan hasi zen irakasle. Bertan, akordeoi, trikitixa, pandero eta abesbatzako klaseak ematen ditu. Madalen Abesbatzaren sortzaile eta zuzendaria da. Mutrikuko Udal Musika Eskolari ere lotuta, Mutrikuko Akordeoi Orkestraren zuzendaria ere izan da. Abesbatza eta Orkestrarekin hainbat ekimen eta kontzertu ezberdinetan parte hartu du. Madalen Abesbatza 1999an eta 2000. urtetan Erreenteriako Gabon Abesti sariaketa probintzian parte hartu zuen eta lehengo eta bigarren sariak irabazi zituen. Diska bat ere grabatu zuen 2001 urtean.

Julia Iriondo, maila erdiko erreperitorio gabezia konpondu nahian, moldaketak egiten hasi zen. Era honetan, bere lana Madalen Abesbatzarako bereziki moldatutako obrak osatzen dute.

Música nacida en Mutriku. Tras cursar estudios de acordeón, comenzó a trabajar como profesora en la Escuela Municipal de Música de Mutriku. Imparte clases de acordeón, trikitixa, pandero y coro. Es fundadora y directora de Madalen Abesbatza. También ha sido directora de la Orquesta de Acordeones de Mutriku, vinculada a la Escuela Municipal de Música de Mutriku. Ha participado en diversas actividades y conciertos con el Coro y la Orquesta. Madalen Abesbatza participó en 1999 y 2000 en el Certamen Provincial de Villancicos de Rentería y ganó el primer y segundo premio respectivamente. También grabó un disco en 2001.

Julia Iriondo, con la intención de remediar la falta de repertorio de nivel medio para coro, comenzó a realizar arreglos de composiciones. De este modo, su trabajo está compuesto por obras especialmente adaptadas para Madalen Abesbatza.

IRIZAR ARANBURU, Martin

IRIZAR ARANBURU, Martin

Beasainen jaio zen. Bere anaia Pello bezala, pianista zen. Bi anaiek, Augusto Lamarianoren eskutik, txistua jotzen ikasi zuten. Tromboia ere jotzen zuen. Donostiako Ekintza ikastolako musika irakaslea zen bizikletaz izandako trafiko-istripu batean hil zenean. Benito Lertxundiren pianista izan zen, eta haren hainbat diskoetan parte hartu zuen. Halaber, Ancha es Castilla bezalako taldeekin ere jo izan zuen. Anaia Pelloarekin batera hainbat konposizio eta moldaketa egin zituen.

Nació en Beasain. Como su hermano Pello, era pianista. Junto a su hermano, y de la mano de Augusto Lamariano, aprendió a tocar la dulzaina. Tocaba también el trombón. Era profesor de música de la ikastola Ekintza de Donostia-San Sebastián cuando falleció en un accidente de tráfico en bicicleta. Fue pianista de Benito Lertxundi y participó en varios de sus discos. También tocó con grupos como Ancha es Castilla. Junto a su hermano, Pello, realizó varias composiciones y arreglos.

IRIZAR ARANBURU, Pello

Beasainen jaio zen. Txistua Ramon Modesto Aranbururekin, Txanborekin, jotzen hasi zen. 12 urterekin musika eta piano ikasketak hasi zituen Beasainen, eta Donostiako Kontserbatorioan amaitu zituen Blanca Burgaleta eta José Medinaren eskutik.

Beste musika-tresna batzuk jotzen ikasi zuen, dultzaina, tronpeta, bombardino eta zeharkako-txirula, besteak beste. Beste irakasle batzuekin batera Beasaingo musika eskolako sortzaileetako bat izan zen 1978an. Ormaiztegiko musika eskolaren sorreran ere parte hartu zuen. 1981ean Koskola txarangaren sorreran parte hartu zuen. Talde honentzako hainbat moldaketa egin zituen eta txarangaren zuzendaria ere izan zen.

Musikagile gisa telebistarako, publizitateko eta industria-bideoetarako lanak idatzi zituen, eta hainbat abestiren, ganbera obren eta bandarako obren moldaketak ere egin zituen.

Compositor nacido en Beasain. Comenzó a tocar el txistu con Ramón Modesto Aranburu, Txanbo. Empezó sus estudios musicales y de piano a los 12 años en Beasain para concluirlos en el Conservatorio de San Sebastián de la mano de Blanca Burgaleta y José Medina.

Aprendió a tocar otros instrumentos como la dulzaina, la trompeta, el bombardino y la flauta. Fue uno de los fundadores de la escuela de música de Beasain junto a otros profesores en 1978. También participó en la fundación de la escuela de música de Ormaiztegui. En 1981 participó en la creación de la charanga Koskola. Realizó varias adaptaciones para este grupo y también fue director de la txaranga.

Como compositor escribió para televisión, publicidad y vídeos industriales, así como varias adaptaciones de canciones, composiciones de cámara y obras para banda.

ITUARTE, Jabier

Ondarroan jaioa, bere jaioterrian egin zituen lehen musika ikasketak.

J. M. Alberdi, G. Aulestia eta T. Aragüés maisuekin harmonia, kontrapuntua eta fuga, konposizioa eta orkestra-zuzendaritza ikasi zituen Donostiako Goi Kontserbatorioan.

1982an Kresala Musika-Bandaren sortu eta bertako bere zuzendaria izan zen. Pozkario Kamara Korala, Kantaiza Abesbatza eta Ondarroako eta Getxoko musika eskoletako bandak zuzendu zituen. Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteko orkestrak ere zuzendu zituen 1999-2005 aldian. 2007tik Portugaleteko Udal Musika Bandako zuzendaria da.

Ondarroako Pedro M^a Unanue Erdi Mailak Kontserbatorioko, Arratiako Musika Eskolako eta Andres Isasi Musikako irakaslea izan da.

Gure Bidea, Tripi-Trapu eta Baneteuanba taldeetan parte hartu zuen eta 1991n Txatanuga Futz Band big-band-a sortu zuen.

Konpositore gisa hainbat sari irabazi ditu banda, txistu eta korurako lanekin.

Nacido en Ondarroa, realizó sus primeros estudios musicales en su localidad natal.

Estudió armonía, contrapunto y fuga, composición y dirección de orquesta en el Conservatorio Superior de San Sebastián con los maestros J. M. Alberdi, G. Aulestia y T. Aragüés.

Fue director fundador de Kresala Música Banda en 1982. Ha dirigido otros grupos como Pozkario Kamara Korala, Kantaiza Abesbatza y las bandas de las escuelas de música de Ondarroa y Getxo. Dirigió también las orquestas de la Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarte durante la etapa 1999-2005. Desde el año 2007 es Director de la Banda Municipal de Música de Portugalete.

Ha sido profesor del Conservatorio de Grado Medio Pedro M^a Unanue de Ondarroa, Arratiako Musika Eskola y Andrés Isasi Musika Eskola.

Formó parte de grupos como Gure Bidea, Tripi-Trapu y Baneteuanba y en 1991 creó la big-band Txatanuga Futz Band.

Como compositor ha ganado diversos premios con obras para banda, txistu y coro.

KEN ZAZPI

Jon Mikel Arronategik (Exkixuko baxu-jotzailea) eta Eñaut Elorrietak (Lugarriko abeslaria) 1996an sortutako pop-rock taldea. 2000 urtean Igor Artzanegi (baxua), Beñat Serna (gitarra), Iñaki Zabaleta (teklatuak) eta Jon Fresko (bateria) sartu ziren taldean, Jose Alberto Batiz gitarrista eta ekoizlearen laguntzarekin euren lehen maketa grabatu zuten.

2001ean, *Atzo da bihar* (Gor) lehen diskoa argitaratu zuten, 20.000 ale baino gehiago saldu zituzten eta, 2003an *Bidean* (Gor) bigarren diskoa argitaratu zuten, antzeko arrakasta lortuz. Bi urte geroago, zuzeneko disko bat argitaratu zuten formatu akustikoan, *Gelditu denbora* (Gor, 2005), eta gainera, argitalpen eksklusibo bat atera zuten Kataluniako merkaturako, *Ilargia (La Lluna)* eta *Zapalduen olerkia (Poema dels oprimits)* abestien bertsoak barne.

2007an diskoetxez aldatu eta *Argiak* (Oihuka) argitaratu zuten, Los Angelesen grabatua Rafa Sardina ekoizlearekin. Lan horretan britain-pop-aren eta power-pop-aren eraginak antzematen dira, eta aurkezpen bira 2009ko urtarrilaren 3an amaitu zuten Donostiako Victoria Eugenia Antzokian. Kontzertu hori *Zazpi urte zuzenean* izenburupean grabatu eta argitaratu zuten.

Ekoizle bera izan zuten lagun *Ortzemugak begietan* (Elkar Argiak, 2010) hurrengo lan diskografikoan, eta Jon Maia eta Maialen Lujanbio bertsolarien eta Uxue Alberdi eta Joseba Sarrionaindia idazleen ekarpenak ere izan zituzten.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin batera (2013) disko bat eta DVD bat grabatu ostean, 2015ean euren azken dizkoa argitaratu zuten, *Phoenicoperus*.

Grupo de pop-rock creado en Gernika en 1996 por Jon Mikel Arronategi (bajista de Exkixu) y Eñaut Elorrieta (cantante de Lugarri). El año 2000 se incorporan a la formación Igor Artzanegi (bajo), Beñat Serna (guitarra), Iñaki Zabaleta (teclados) y Jon Fresko (batería), grabando su primera maqueta con la ayuda del guitarrista y productor José Alberto Batiz.

En 2001 se publica su disco de debut, *Atzo da bihar* (Gor), con el que llegan a vender más de 20.000 ejemplares y, en 2003, editan su segundo trabajo discográfico, *Bidean* (Gor), alcanzando un éxito similar. Dos años después publican un disco en directo en formato acústico, *Gelditu denbora* (Gor, 2005), del que además extraen una edición exclusiva para el mercado catalán que incluye las versiones de las canciones *Ilargia (La Lluna)* y *Zapalduen olerkia (Poema dels oprimits)*.

En 2007 cambian de casa discográfica y publican *Argiak* (Oihuka), grabado en Los Ángeles con el productor Rafa Sardina, trabajo en el que se aprecian influencias del brit-pop y el power-pop, y cuya gira de presentación concluirá en el Teatro Victoria Eugenia de Donostia el 3 de enero de 2009, concierto que aprovecharán para grabar y publicar con el título *Zazpi urte zuzenean*.

Contarán con la colaboración del mismo productor para su siguiente trabajo discográfico, *Ortzemugak begietan* (Elkar Argiak, 2010), en el que también tendrán aportaciones de bertsolaris como Jon Maia y Maialen Lujanbio, y de escritores como Uxue Alberdi y Joseba Sarrionaindia para los textos.

Tras grabar un disco y un DVD junto a la Orquesta Sinfónica de Euskadi (2013), en 2015 llega su último trabajo discográfico hasta la fecha, *Phoenicoperus*.

LABÉGUERIE, Michel

Uztaritzen jaio zen 1921ean. Gaztaroan, udako oporretan, Hilario Olazarán de Estella aita nafarrarekin ikasi zuen txistua jotzen. Medikuntza ikasi zuen Bordelen, eta birika-fisiologian espezializatu zen. 1948an Kanbon ezarri zen, eta 1960an Euskalzaleen Biltzarrako lehendakari izendatu zuten. Poesian aritu ondoren, konposizio-lanetarako trebetasun handia erakutsi zuen, Georges Brassensen estiloaren antza zuen molde batean.

1961ean kaleratu zuen bere lehen diskoa, berak gitarraz lagunduta abestuz, eta Euskal Kantagintza Berriaren mugimenduko aitzindarietako bat bihurtu zen. 1962an Frantziako Biltzar Nazionalean diputatu aktak lortu zuen Pirinio Atlantikoetako ordezkari gisa, eta bi aldiz senatari ere hautatu zuten. 1965etik aurrera Kanboko alkate izan zen hainbat aldiz. 1980an hil zen, Toulousen.

Nació en Ustaritz en 1921. En los veranos de su juventud aprendió el txistu con el P. Hilario Olazarán de Estella. Estudió medicina en Burdeos, especializándose en neumofisiología. En 1948 se instaló en Kanbo y en 1960 fue elegido presidente del Euskalzaleen Biltzarra. Tras su incursión en la poesía, demostró una gran facilidad para la composición con un estilo similar al de Georges Brassens.

En 1961 editó su primer disco acompañando él mismo sus canciones a la guitarra y llegó a convertirse en uno de los padres fundadores del movimiento Euskal Kantagintza Berria. En 1962 obtuvo el acta de diputado en la Asamblea Nacional Francesa por los Pirineos Atlánticos y fue elegido senador en dos ocasiones. Ostentó la alcaldía de Kanbo repetidamente desde 1965 y falleció en 1980 en Toulouse.

LAMBERT, Ekhi

Irulegin jaioa, 15 urterekin eman zituen lehen urratsak 667 taldean. Filosofia ikasketak egiteko musika alde batera utzi ondoren, 2014an berriz ekin zion jardun musikarari Doktor Mephisto taldearekin, eta Baionako Kontserbatorioan hasi zituen musika tradizionalako ikasketak, amaierako saria eskuratu. Seitan folk hirukoarekin kaleratu zuen bere lehen diskoa, *Haustura* izenekoa. *Haira*, *Altxalili Show!* edo *Izakiak* ikuskizunetan parte hartu du. Baigorriko Gaiteroak, Et Incarnatus, Oiasso Kamerata eta Gaitistaneko Orkestrarentzat konposizioak eta moldaketak idatzi ditu.

Dantza munduan ere aritu da, Alabena konpainiarekin eta Arrola taldearekin. Bere lanean hainbat eragin uztartzen dira: euskal kanta herrikoa, frantziar kanta, musika impresionista eta bideo-jokoetako musika, besteak beste.

2023an hautatua izan zen EKE, Atabal Aretoa, Kulturaz Kooperatiba eta Musika Bulegoak lehen aldiz antolatutako egoitza artistikoan parte hartzeko. Azken diskoa, *Inbasioa* (2024), hainbat artistarekin elkarlanean ekoitzi du: Vincent Mougel, Oiasso Kamerata eta Joseba Irazoki, besteak beste.

Músico y cantante nacido en Irulegi, dio los primeros pasos a los 15 años con el grupo 667. Tras dejar de lado la música para realizar sus estudios de filosofía, reinició su actividad en 2014 con Doktor Mephisto e inició sus estudios de música tradicional en el Conservatorio de Bayona, en el que obtuvo el premio fin de estudios. Con el trío de folk Seitan publica su primer disco *Haustura*. Ha participado en proyectos como *Haira*, *Altxalili Show!* o el espectáculo *Izakiak*. Ha escrito composiciones y arreglos para Baigorriko Gaiteroak y Et Incarnatus, Oiasso Kamerata o Gaitistaneko Orkestra. También ha trabajado en el mundo de la danza con la compañía Alabena y el grupo Arrola. En él confluyen diferentes influencias como la canción popular vasca, la canción francesa, la música impresionista o la música de videojuegos. En 2023 fue seleccionado para participar en la residencia artística organizada por primera vez por EKE, Sala Atabal, Kulturaz Kooperatiba y Musika Bulegoa. Ha producido su último disco *Inbasioa* (2024) en colaboración con artistas como Vincent Mougel, Oiasso Kamerata o Joseba Irazoki.

LARREA, Valentín

Gabirian jaio zen. Solfeo eta piano ikasketak bere aita Melitón Larrea Pérezekin hasi zituen, hau idazkari, irakasle eta organo-jotzailea izanik. 1893an Madrilgo Musika eta Deklamazio Eskola Nazionalan sartu zen, eta bertan Valentín Arínekin harmonia ikasi zuen, Emilio Serranorekin konposizioa, José Tragórekin pianoa eta Jimeno de Lermarekin organoa.

Madrilen ikasketak kalifikaziorik onenekin amaitu ondoren, Iruñeko Casino Eslavako pianista plazara aurkeztu zen, eta 1898ko urrian aho batez lortu zuen postua. Iruñeko Chapatela kalean ezarri zen, eta hiriko bizitza kulturalaren eragile garrantzitsu bihurtu zen, betiere bere jaioterriarekiko lotura estua gordez.

Bere ibilbidean hainbat sari jaso zituen Euskal Jaietan: 1900ean, 1901ean, 1902an, 1904an, 1905ean, 1906an, 1907an eta 1911n. Beste lehiaketa batzuetan saritutako bere lanen artean daude *Gure arbol santuari*, *Seis preludios vascos*, *Cuatro preludios inspirados en melodías populares navarras*, eta hari orkestrarako vals sorta bi: *Sueño de amor* eta *Bellas artes*

Nacido en Gabiria, comienza sus estudios de solfeo y piano con su padre Melitón Larrea Pérez, secretario, profesor y organista. En 1893 ingresó en la Escuela Nacional de Música y Declamación de Madrid donde estudió armonía con Valentín Arín, composición con Emilio Serrano, piano con José Tragó y órgano con Jimeno de Lerma.

Finalizados sus estudios en Madrid con las máximas calificaciones, se presentó a la plaza de pianista del Casino Eslava de Pamplona, obteniendo la plaza por unanimidad en octubre de 1898. Instalado en la calle Chapatela de la capital navarra, participó activamente en la vida cultural de Pamplona y mantuvo relación estrecha con su localidad natal.

Durante su carrera obtuvo diversos premios en las Fiestas Euskaras en 1900, 1901, 1902, 1904, 1905, 1906, 1907 y 1911. Entre sus obras premiadas en otros concursos se encuentran *Gure arbol santuari*, *Seis preludios vascos*, *Cuatro preludios inspirados en melodías populares navarras* y las tandas de vals para orquesta de cuerda *Sueño de amor* y *Bellas artes*.

LERTXUNDI, Benito

Orion (Gipuzkoa) jaio zen 1942an eta familiarekin izan zuen lehen harremana musikarekin.

1965ean, beste euskal musikari batzuekin batera, Ez Dok Amairu mugimenduan parte hartu zuen, esperimentazio eta ikaskuntzarako leku bikaina izan zena, eta 1972an desegin bazen ere, bere arrastoa utzi zuen Lertxundi gaztearengan.

1971n argitaratu zen iraupen luzeko lehen diskoa, eponimoa. 1974an, *Oro laño mee batek...* idatzi zuen, eta, 1975ean, ... eta *Maita herria, üken dezadan plazera*. 1977an *Zuberoa/askatasunaren semeei* disko bikoitza atera zen. 1981ean beste disko bikoitz bat atera zen kalera: *Altabizkar / Itzaltzuko Bardoari*. 1987an argitaratu zen *Mauleko bidean...izatearen mugagabea*. Ondoren, *Pazko gaiardi ondua* (1989) eta *Hunkidura kuttunak* (1993) bilduma iritsiko dira. 2002an *Nere Ekialdean* argitaratu zuen.

2005ean Álvaro Feitok bere lehen gaztelaniazko biografia argitaratu zuen, *Benito Lertxundi: El bardo de Orio*. Urte horretan bertan argitaratu zuen, gainera, bere hurrengo lana: *40 urtez ikasten egonak* (2005), *Itsas ulu zolia* (2008), *Oroimenaren Oraina* (2012), *Ospakizun gauean* (2018) eta *Zuhaitzak landatzen zuen gizona* (2019). 2024an, *Gernika zuzenean* bere azken diskoaren aurkezpenarekin, agertokietatik erretiratuko zela iragarri zuen.

Nació en Orio (Guipúzcoa) en 1942 y su primer contacto con la música fue en el entorno familiar.

En 1965, junto con otros músicos vascos, formó parte del movimiento Ez Dok Amairu que resultó ser un magnífico lugar de experimentación y aprendizaje y, aunque se disolvió en 1972, dejó su huella en el joven Lertxundi.

En 1971 se publica su primer disco de larga duración, de título epónimo. En 1974 compone *Oro laño mee batek...*, y, en 1975, ...*eta Maita herria, üken dezadan plazera*. En 1977 sale el doble disco *Zuberoa / Askatasunaren semeei*. En 1981 sale a la calle otro disco doble: *Altabizkar / Itzaltzuko Bardoari*. En 1987 se publicó *Mauleko bidean...izatearen mugagabea*. Después llegarán *Pazko gaiardi ondua* (1989) y el recopilatorio *Hunkidura Kuttunak* (1993). En el año 2002 publicó *Nere Ekialdean*.

El año 2005 Álvaro Feito publica su primera biografía en castellano, *Benito Lertxundi: el bardo de Orio*. Ese mismo año sale a la luz, además, su siguiente trabajo: *40 urtez ikasten egonak* (2005), al que seguirán *Itsas ulu zolia* (2008), *Oroimenaren Oraina* (2012), *Ospakizun gauean* (2018), *Zuhaitzak landatzen zituen gizona* (2019). En 2024 anuncia su retirada de los escenarios con la presentación de su último disco en directo, *Gernika zuzenean*.

LETE, Xabier

Oiartzunen jaio zen 1944an, eta euskal poeta, musikari eta kantari ospetsua izan zen. Pasaiaiko Bianchi fabrikan lan egin ondoren hasi zuen bere ibilbide artistikoa. Bere lan poetikoak honako argitalpenak biltzen ditu: *Egunetik egunera orduen gurpilean* (1968), *Bigarren poema liburua* (1974), *Urrats desbideratuak* (1981), *Zentzu antzaldatuak* (1992) eta *Biziaren ikurrak* (1992). 2009an, euskarazko poesiaren Kritika Saria eman zitzaion *Egunsentiaren esku izoztuak* lanari esker, eta lan horrekin Euskadi Literatura Saria ere irabazi zuen.

Abeslari eta konpositore bezala, Lete funtsezko pertsona izan zen Ez Dok Amairu Euskal Kantagintza Berriaren mugimenduan, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Jose Anton Artze, Jose Angel Irigaray eta Lourdes Iriondorekin batera. Euskal kultura berritzeko asmoz sortua, taldea aktibo mantendu zen 1965 eta 1972 artean. 1978an agertokietatik erretiratu ondoren, 90eko hamarkadan itzuli zen, baina osasun-arazoak zirela eta, emanaldi mugatuekin.

Bere alderdi artistikoaz gain, Letek rol politikoak bete zituen Kultura zuzendari eta Gipuzkoako diputatu gisa. Bere ondarea bizirik dirau euskarazko musika eta poesia munduan.

Nacido en Oiartzun en 1944, fue un destacado poeta, músico y cantante en euskera. Inició su carrera artística tras trabajar en la fábrica Bianchi de Pasaia. Su obra poética abarca publicaciones como: *Egunetik egunera orduen gurpilean* (1968), *Bigarren poema liburua* (1974), *Urrats desbideratuak* (1981), *Zentzu antzaldatuak* (1992) y *Biziaren ikurrak* (1992). En 2009, se le otorgó el Premio de la Crítica de poesía en euskera por su obra *Egunsentiaren esku izoztuak*, obra con la que también ganó el Premio Euskadi de Literatura.

Como cantante y compositor, Lete fue una figura clave en el movimiento de la Nueva Canción Vasca, Ez Dok Amairu, junto a Mikel Laboa, Benito Lertxundi, José Anton Artze, José Ángel Irigaray y Lourdes Iriondo. Creado con el propósito de renovar la cultura vasca, el grupo se mantuvo activo entre 1965 y 1972. Tras retirarse de los escenarios en 1978, regresó en los años 90, aunque con actuaciones limitadas debido a problemas de salud.

Además de su faceta artística, Lete desempeñó roles políticos como director de Cultura y diputado de Gipuzkoa. Su legado perdura en la música y la poesía en euskera.

LOIDI, Gabriel

1967an Donostian jaio zen. Goi-mailako piano ikasketak Londresko Guildhall School of Music-en egin zituen.

Egilearen azken estreinaldien artean daude *Lamiaren Kantuak*, Euskalduna Jauregian BOSeko kideek interpretatua; biolin eta biolontxelorako kontzertuak (2019) eta bi biolinentzako kontzertua (2023), Leongo Espainiako Musika Jaialdian Orquesta Ibérica-k interpretatuz; eta 5. laukotea, CNDMk enkargatua eta Cuarteto Gerhardek Donostiako Musika Hamabostaldian estreinatua.

Aurretik, 3. eta 4. harizko laukoteak Cuarteto Bretónek estreinatu zituen, eta *Euskal Baleazaleak*, euskal baleazaleen historiaren gaineko lana, RTVEko Abesbatzak 2017an interpretatuz. Urte berean, BOSeko kideek tronboi eta hariantzako boskotea estreinatu zuten Bilboko Euskalduna Jauregian.

2016an, Euskadiko Orkestrak, Andra Mari Abesbatzarekin batera, *Balea* Musikaste 2016ko amaiera-kontzertuan estreinatu zuen.

2018an, RTVEko Orkestra Sinfonikoko bakarlariek *Caminos de Brujería* boskotea aurkeztu zuten Los Conciertos de Radio Clásica-ren XXII. zikloan, eta *Juan Sebastián Elcano* lana estreinatu zen, Radio Clásica eta La 2 kateek emana. Lan honen orkestrarako bertsioa 2022ko irailean interpretatu zuten Teatro Realeko Orkestra eta Abesbatza Titularrek Madrilgo Auditorio Nazionalean, munduari lehen bira eman zitzaionaren bosgarren mendeurrena ospatzeko

Nacido en San Sebastián en 1967, cursó estudios superiores de piano en la Guildhall School of Music en Londres.

Estrenos recientes del autor incluyen *Lamiaren Kantuak* en el Palacio Euskalduna por miembros de la BOS, los conciertos para violín y cello (2019) y para dos violines (2023) en el Festival de Música Española de León por la Orquesta Ibérica, y el Cuarteto nº5, encargo del CNDM, interpretado por el Cuarteto Gerhard en la Quincena Musical de San Sebastián.

Anteriormente fueron estrenados los Cuartetos de Cuerda nº 3 y 4 a cargo del Cuarteto Bretón, y *Euskal Baleazaleak*, sobre la historia de los balleneros vascos con el Coro de RTVE en 2017. También en 2017, miembros de la BOS estrenaron su quinteto para trombón y cuerda en el Palacio Euskalduna de Bilbao.

En 2016, la Euskadiko Orkestra, junto con la Coral Andra Mari, estrenó *Balea* en el concierto de clausura de Musikaste 2016.

En 2018 se presentó el quinteto *Caminos de Brujería* a cargo de solistas de la Orquesta Sinfónica RTVE dentro del XXII Ciclo Los Conciertos de Radio Clásica, y se estrenó la obra *Juan Sebastián Elcano*, retransmitida por Radio Clásica y La 2. La versión orquestal de esta obra ha sido interpretada en septiembre de 2022 por la Orquesta y Coro Titulares del Teatro Real en el Auditorio Nacional de Madrid, en conmemoración del quinto centenario de la primera vuelta al mundo.

MOCOROA, Eduardo

1867ko urriaren 13an Tolosan jaiotako kapera-maisu, organista eta zuzendaria. Solfeoko eta pianoko lehen ikasketak Modesto Letamendia eta Rufo Montillarekin egin zituen, eta oso gazte sartu zen Tolosako Udal Bandan saxofoi-jotzaile gisa. Hamaika urterekin, Felipe Gorritik parrokiako musika-kaperan sartzea proposatu zion, eta bertan pianoa, organoa, harmonia, kontrapuntua, fuga eta konposizioa ikasi zituen.

1896an Santa Maria parrokiako kapera-maisu eta organista izendatu zuten, baita udal Musika Bandako eta Akademiako zuzendari ere. Gainera, biolin irakasle kargua hartu zuen akademia berean. Hiru urte geroago, Hainauteko (Belgika) Nazioarteko Lehiaketetan bere lanetako batzuek lehen sariak lortu zituzten, eta Belgikako erregeak Hainauteko Akademia Artistiko, Zientifiko eta Literarioko ohorezko kide izendatu zuen.

1901ean Tolosako Orfeoiaren sorreran parte hartu zuen eta bertako zuzendari izendatu zuten. 1921ean, Jesús Guridi eta José Francorekin batera Tolosan sortutako Musica Vasca Argitaletxearen zuzendaritza artistikoa hartu zuen.

Tolosako Udalak Hiriko Seme Kutun izendatu zuen 1942an, eta urte horretan bertan, Donostiako Orfeoia eta Felipe Gorriti Eskolaniak ohorezko zuzendari titulua eman zioten. Hurrengo urtean, Alfontso X.a Jakitunaren Gurutzea eman zioten.

Orkestra, banda eta korurako ehundik gora obra idatzi zituen, erlijiosoak zein profanoak, eta genero dramatikoak ere jorratu zuen.

Tolosan hil zen 1959ko urtarrilaren 30ean.

Maestro de capilla, organista y director nacido en Tolosa el 13 de octubre de 1867. Realizó sus primeros estudios de solfeo y piano con Modesto Letamendia y Rufo Montilla, e ingresó como saxofonista en la Banda Municipal de Tolosa a muy temprana edad. Con once años, Felipe Gorriti le propuso ingresar en la capilla musical de la parroquia, donde estudiará piano, órgano, armonía, contrapunto, fuga y composición.

En 1896 fue designado maestro de capilla y organista de la parroquia de Santa María, así como director de la Banda y de la Academia de Música municipales. Además, asumió el cargo de profesor de violín en la misma academia. Tres años más tarde, varias de sus obras obtuvieron primeros premios en los Concursos Internacionales de Hainaut (Bélgica), por lo que el rey belga le nombró miembro de honor de la Academia Artística, Científica y Literaria de Hainaut.

En 1901 participó en la creación del Orfeón Tolosano, del que fue nombrado director, y, en 1921, asumió la dirección artística de la Editorial de Música Vasca, creada en Tolosa, junto a Jesús Guridi y José Franco.

El Ayuntamiento de Tolosa lo nombró Hijo Predilecto de la Villa en 1942 y, ese mismo año, el Orfeón Donostiarra y la Escolanía Felipe Gorriti le distinguieron con el título de director honorario. Al año siguiente, le fue concedida la Cruz de Alfonso X el Sabio.

Su producción engloba más de un centenar de obras para órgano, orquesta, banda y coro, tanto religiosas como profanas, además de que también abordó el género dramático.

Falleció en Tolosa el 30 de enero de 1959.

OIARTZABAL, Joxemari

Andoainen jaio zen 1946ean. Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan ikasi zuen, eta Tronpeta Karrera Amaierako 1. Saria eta Konposizio eta Orkestra Zuzendaritza tituluak eskuratu zituen. 1975ean hasi zen irakasle lanetan, Lasarteko Santa Cecilia Musika Akademian. 1985ean Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko Tronpeta irakasle gisa kontratatu zuten, eta 1986an Katedra lortu zuen oposizio bidez. Bertan 1987-89 bitartean Banda Sinfonikoa zuzendu zuen, 1990-1997 bitartean Ikasleen Banda eta 1998-2000 bitartean Ikasleen Orkestra Sinfonikoa. ETBko hainbat saiotan parte hartu izan du, zuzendari, moldatzaile eta interprete gisa, baita konpositore zuzendari eta bandarako eta musika taldeetarako grabaketetan moldatzaile gisa ere. 1987az geroztik, Raimundo Sarriegiren martxen eta inauterietako piezen bandarako moldaketak egin ditu. Santesteban, Sorozabal eta beste konpositore batzuen moldaketak ere egin ditu. Moldaketa horietako asko biltzen dituzten bost disko argitaratu dira, eta horien artean *Andoainen egina eta entzuna* lan bikoitza nabarmendu daiteke.

Nace en Andoain en 1946. Cursa sus estudios musicales en el Conservatorio Superior de Música de San Sebastián, obteniendo el 1º Premio Fin de Carrera de Trompeta, así como los títulos de Composición y Dirección de Orquesta. Su labor docente comienza en 1975 en la Academia de Música Santa Cecilia de Lasarte. En 1985 es contratado como profesor de Trompeta del Conservatorio Superior de Música de San Sebastián, obteniendo la Cátedra por oposición en 1986. En dicho centro dirige entre 1987-89 la Banda Sinfónica, entre 1990- 1997 la Banda de Alumnos y de 1998 a 2000 la Ikasleen Orkestra Sinfonikoa.

Ha participado en numerosos programas de ETB como director, arreglista e intérprete y también como compositor director y arreglista en grabaciones para banda y grupos musicales. Realiza desde 1987 los arreglos para banda de las marchas y piezas de carnaval de Raimundo Sarriegui. También ha realizado arreglos de los compositores Santesteban, Sorozábal, etc. Se han editado cinco discos que recogen buena parte de estos arreglos, entre los que cabe destacar el doble *Andoainen egina eta entzuna*.

OLAIZOLA, Gabriel

1891n Hernanin jaio zen. Bere anaia Josék bezala, herriko organista zen Manuel Cendoyarekin hasi zituen musika ikasketak. 1916an Donostiako Orfeoian sartu zen eta ondoren Bartzelonara joan zen Joaquín Vehilsekin ikastera. Bere ibilbidean zehar, Donostiako Arte Ederrak, Bilboko Campos Eliseos, Madrilgo Teatro Real, Bartzelonako Liceo, Lisboako San Carlos, Milango Scala, Napoliko San Carlo, Parmako Regio eta abar bezalako areto eta antzokietan aritu zen abeslari gisa, eta Mancinelli, Toscanini, Santini eta Capuano zuzendarien zuzendaritzapean. Euskal operaren esparruan, Zapirainen *Chanton Pipperri*, Usandizagaren *Mendi-Mendiyan*, Guridiren *Amaya* edo bere anaia José de Olaizolaren *Oleskari Zarra* antzeztu zituen. Koru zuzendari gisa, Eusko Abesbatza zuzendu zuen 1931n, eta 1937an, Jose Antonio Agirre lehendakariak eskatuta, Eresoinka euskal abesbatza nazionala sortu zuen. 1949an Hernaniko Schola Cantorum sortu zuen. Kantu irakaslea ere izan zen Covadongako Seminarioan, Gasteizko Elizbarrutiko Seminarioan eta Hernaniko Oblatos Ikastetxean. Hernanin zendu zen 1973an.

Nacido en Hernani en 1891, al igual que su hermano José inició los estudios musicales con Manuel Cendoya, organista de la localidad. En 1916 ingresó en el Orfeón Donostiarra y posteriormente se trasladó a Barcelona para estudiar con Joaquín Vehils. A lo largo de su carrera actuó como cantante en salas y teatros como el Bellas Artes de Donostia, Campos Eliseos de Bilbao, Teatro Real de Madrid, Liceo de Barcelona, San Carlos de Lisboa, Scala de Milán, San Carlo de Nápoles, Regio de Parma y un largo etcétera bajo batutas tan importantes como las de Mancinelli, Toscanini, Santini y Capuano. En el ámbito de la ópera vasca, interpretó papeles en *Chanton Pipperri* de Zapirain, *Mendi-Mendiyan* de Usandizaga, *Amaya* de Guridi u *Oleskari Zarra*, de su hermano José de Olaizola. Como director de coro, dirigió al Eusko Abesbatza en 1931 y en 1937 fundó, a instancias del lehendakari José Antonio Aguirre, el coro nacional vasco Eresoinka. En 1949 fundó la Schola Cantorum de Hernani. Fue asimismo profesor de canto en el Seminario de Covadonga, en el Seminario Diocesano de Vitoria-Gasteiz y en el Colegio Oblatos de Hernani. Falleció en su localidad natal en 1973.

ROMANO UGARTE, Julián María

Lizarrakoa jaiotzez, bere jaioterriko San Juan Parrokiako organo-jotzailearekin hasi bide zuen musikari heziketa. Bere musika-jarduerari buruzko lehen aipamena 1856koa da, gaitari gisa aipatzen denean. Denborarekin, Julian Romanoren ibilbidea goraka joan zen, eta gaita ezinbesteko elementu bihurtu zen Lizarrako edozein ospakizunetan.

Nafarroako Gobernuak probintziaren ordezkari gisa bidali zuen Alfontso XII.aren eta Maria de las Mercedesen ezkontzara. Hortik aurrera, Lizarrako Udala eskaera ugari jasotzen hasi zen, Lizarrako Gaiteroak deitzen hasi zirenak bidal zitzaizkien. Solfeo, biolin eta piano irakasle ezaguna, Lizarrako lehen Musika Bandako zuzendari izan zen. Udal Musikaren zuzendari ere izendatu zuten, eta Romanok hartu zuen gaitariaren irakaspenaren ardura ofiziala.

Bandarako eta gaitarako musika idazten aitzindaria izan zen. Bere ibilbidean zehar, 17 sonata eta dantzarako pieza ugari konposatu zituen, baltsak, polkak, mazurkak, schottisch-ak, jotak eta beste genero batzuetako bildumetan bilduta.

Estellés de nacimiento, parece que comenzó su formación como músico con el organista de la Parroquia de San Juan de su ciudad natal. La primera constancia de su actividad musical se encuentra en 1856, donde se hace referencia a él como gaitero. La actividad de Julián Romano fue subiendo y la gaita acabó siendo parte de cualquier celebración en Estella.

El Gobierno de Navarra lo envió como representación de la provincia a la boda de Alfonso XII y María de las Mercedes. A partir de este hecho, el Ayuntamiento de Estella comenzó a recibir multitud de solicitudes para que enviara a los que se comenzó a denominar como los “Gaiteros de Estella”.

Reconocido profesor de solfeo, violín y piano, ocupó el cargo de director de la primera Banda de Música de Estella. Nombrado también director de la Música Municipal, Romano se hizo cargo oficialmente de la instrucción de los gaiteros.

Fue el primero en escribir música para banda y gaita, y compuso 17 sonatas y abundantes bailables, acumulados en Tandas de Valses, Polkas, Mazurkas, Schottisch, Jotas, etc.

SAINZ BASABE, José

Madrilen ustekabean jaioa, bere familia Gasteizen bizi zen eta bertan tiple bezala abesten hasi zen San Pedro parrokiako kaperan. Biolina eta konposizioa ikasi zituen Madrilen eta 19 urterekin Barbastroko Batailoiko musikari nagusi plaza bat lortu zuen. Erroma Sariak Europako hainbat herrialdetan bidaiatzeko aukera eman zion. 1894an Bilboko Udal Bandako bitarteko zuzendari izendatu zuten. 1896an zuzendaritza postua lortu zuen eta 1918ra arte bete zuen kargu hori. Bilboko Elkarte Filarmonikoko zuzendari ere izan zen 1989 eta 1901 bitartean.

1903an harmonia eta solfeo irakasle izendatu zuten Bizkaiko Musika Akademian, eta 1920an kontrapuntua eta fuga eman zituen Bizkaiko Musika Kontserbatorioan. 1927tik, 1948an hil zen arte, zuzendari izan zen.

Bere konposizio gehienak bandarako dira eta Bilboko Udal Bandak estreinatu zituen. *Udala* opera konposatu zuen Alfredo Echaveren libretoarekin.

Nacido accidentalmente en Madrid, su familia residía en Gasteiz, donde comenzó a cantar como tiple en la capilla de la parroquia de San Pedro. Estudió violín y composición en Madrid y a los 19 logró una plaza de músico mayor del Batallón de Barbastro. El Premio Roma le permitió viajar por distintos países europeos. En 1894 fue nombrado director interino de la Banda Municipal de Bilbao. En 1896 accedió al puesto de dirección, cargo que ocupó hasta 1918. Ejerció también como director de la Sociedad Filarmónica de Bilbao entre 1899 y 1901. En 1903 fue nombrado profesor de armonía y solfeo en la Academia Vizcaína de Música, y en 1920 pasó a impartir contrapunto y fuga en el Conservatorio Vizcaíno de Música, del que fue director desde 1927 hasta su muerte en 1948.

La mayor parte de sus composiciones son para banda y fueron estrenadas por la Banda Municipal de Bilbao. Compuso la ópera *Udala* con libreto de Alfredo Echave.

SARASOLA, Xabier

Musika ikasketak 19 urterekin hasi zituen, biolin eta piano irakasle titulua lortuz. Gaur egun biolin, harmonia eta kantu koraleko irakaslea da Beasaingo Udal Musika Eskolan.

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioko koru zuzendaritzako ikastaroetan parte hartu du, baita mintegietan ere, Eric Ericson, Carl Hogset, Anders Eby eta abarrekin. Loinatz abesbatzako zuzendaria izan da 25 urtez, eta hainbat lehiaketatan parte hartu du, hainbat sari eskuratuz eta hainbat kontzertu eta abesbatzen jaialditan parte hartuz. Donostiako Orfeoiko kantaria izan da eta orain XX. mendeko musika koralean aritzen den KEA ahots taldekoa da. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioko batzorde teknikoko kidea eta Gipuzkoako Gazte Abesbatzako zuzendaria izan da. Euskal Herriko Abesbatzen Federazioko ikastaroetako zuzendaritza koraleko irakaslea da. Konpositore gisa, hainbat koru-lanen egilea da, eta horien artean dago *Veni Creator Spiritus*, 2002ko Tolosako Abesbatzen Lehiaketan ahots berdinen polifonia sailean nahitaez egin beharreko lana.

Inicia sus estudios musicales a la edad de 19 años, obteniendo los títulos de profesor de violín y piano. En la actualidad ejerce como profesor de violín, armonía y canto coral en la Escuela Municipal de Música de Beasain. Ha asistido a los cursos de dirección coral de la Federación de Coros de Gipuzkoa y a seminarios con Eric Ericson, Carl Hogset, Anders Eby, etc. Director del coro Loinatz durante 25 años, con quien ha participado en varios concursos obteniendo diversos premios y en numerosos conciertos y festivales corales. Ha sido cantor del Orfeón Donostiarra y ahora lo es del grupo vocal KEA, que se dedica a la música coral del s. XX. Ha sido miembro del comité técnico de la Federación de Coros de Gipuzkoa y director del Coro Juvenil de Gipuzkoa. Es profesor de dirección coral de los cursos de la Federación de Coros de Euskal Herria. Como compositor es autor de varias obras corales entre las cuales se encuentra *Veni Creator Spiritus*, obra obligada en la sección de polifonía voces iguales en el Certamen de masas corales de Tolosa 2002

SOROZABAL, Pablo

Donostian jaio zen 1897an. Bere jaioterriko Arte Ederretako Akademian hasi zituen musika ikasketak. 1914an Kasino Handiko Orkestran sartu zen, Alfredo Larrocha biolin irakasleak zuzenduta. Harmonia eta konposizioa ikasi zituen Beltrán Pagolarekin. 1920an Leipzigerera joan zen, Stephan Krehlekin kontrapuntua ikasi zuen eta orkestra zuzendaritza Hans Sittekin. Lan handia egin zuen lehenik banda zuzendari gisa eta geroago orkestra zuzendari gisa. 1922koak dira bere abesbatarako lehen obrak, eta, jarraian, ganbera eta sinfoniko erreperatorioko obrak eta txisturako musika idatzi zituen. 1931n *Katiuska* opereta estreinatu zuen, ordutik aurrera musika lirikoa idatzi zuen batez ere, 23 obra, horien artean *La del manojo de rosas*, *La Tabernera del Puerto* edo *Adiós a la Bohemia*. Zinemarako musika ere konposatu zuen, ahots edo orkestrako generoak ahaztu gabe. Madrilen hil zen 1988ko abenduaren 26an.

Nació en San Sebastián en 1897. Inició sus estudios musicales en la Academia de Bellas Artes de su ciudad natal. En 1914 ingresó en la Orquesta del Gran Casino, dirigida por su profesor de violín Alfredo Larrocha. Estudió armonía y composición con Beltrán Pagola. En 1920 se trasladó a Leipzig, estudiando contrapunto con Stephan Krehl y dirección de orquesta con Hans Sitt. Desarrolló una gran labor primero como director de banda y más tarde como director de orquesta. De 1922 datan sus primeras obras corales, a las que siguen obras del repertorio de cámara y sinfónico, y música para txistu. En 1931 estrenó su opereta *Katiuska*, dedicándose a partir de entonces a la música lírica, con un total de 23 obras entre las cuales destacan *La del manojo de rosas*, *La tabernera del Puerto* o *Adiós a la Bohemia*. Compuso igualmente música para cine, sin olvidar géneros como el vocal o el orquestal. Falleció en Madrid el 26 de diciembre de 1988.

TOLARETXIPI, Iñaki

Ingenieritza Industrialean Doktorea eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle titularra, Landarbaso Abesbatzaren zuzendaria da bere sorreratik. Tronpetako irakasle tituluduna da.

Harmonia, kontrapuntoa, abesbatza zuzendaritza eta piano ikasketak egin ditu Erreterian eta Donostian. Ahots-teknikari buruzko hainbat ikastarotan parte hartu zuen Herminia Laborde, Guilles Sneider eta Franz Brandl-ekin, Maite Ocarekin Pedagogia Musikalari buruzkoan, eta Carl Hogset, Eric Ericson, Pierre Cao, Laszlo Heltay, Erwin List, Jogunhan Duijck Schimar, Negreiros, Javi busto eta Miguel Amantegirekin, besteak beste.

Bere artistiko-zuzendaritzapean, Landarbaso Abesbatzak nazio mailako lehiaketetatik nazioartekoetara egiten du salto 2001az geroztik, nazioarteko 24 sari lortuaz. Horietan aipagarria da zuzendaritza onenari jasotako saria Hungariako “Bela Bartok” ospetsuan. Gainera, *Asiako Gran Prix-a lortu du 2023. urtean.*

Nacido en Erretereria, es doctor Ingeniero y profesor titular de la Universidad del País Vasco, es director de Landarbaso Abesbatza desde su creación. Es también profesor titular de trompeta.

Ha realizado estudios de Armonía, Contrapunto, dirección de coros y piano en Erretereria y Donostia. Asiste a diversos cursos de Técnica Vocal con Herminia Laborde, Guilles Sneider y Franz Brandl, de Pedagogía Musical con Maite Oca, y de Dirección Coral con Carl Hogset, Eric Ericson, Pierre Cao, Laszlo Heltay, Erwin List, Johan Duijck, Gunar Ericson, Martin Schimit, V. Negreiros, Javi Busto y Miguel Amantegi.

Bajo su dirección artística, Landarbaso Abesbatza da el salto de concursos nacionales a internacionales, en los que ha participado desde 2001 y ha obtenido 24 premios internacionales. Entre ellos cabe destacar el obtenido a la mejor dirección en el prestigioso “Bela Bartok” de Hungría y en 2023 el Gran Prix de Asia.

URTEAGA, Luis


Ordizian jaio zen 1882an. Herriko parrokian tiple izan zen. Lehen musika-ikasketak Francisco Garate, Lorenzo Martínez eta Candido Elorza organistekin egin zituen, eta aurrerago, Rodoreda maisuarekin harmonia eta konposizioa ikasi zituen Donostian. Gehiago ikasteko asmotan, 1902an Balmasedara joan zen kontrapuntua eta fuga ikastera, hango organista-postua atera berri zuen Martín Rodríguezengana. Ikasketak amaitu eta, Gipuzkoako hainbat herritan organista ibili ondoren, Berastegiko organista-plaza irabazi zuen 1904an. Hurrengo urtean, ordea, Zumaiara joan zen han ere organista-plaza betetzera, eta bertan bizi izan zen 15 urte inguru Zumaiako musikari bultzada handia eman zion: parrokiako abesbatzaren eta bandaren zuzendari izan zen, kontzertuak antolatu zituen, musika konposatu zuen, eta abar. 1920an behin betirako Donostiara joan zen, San Bizenteko organista eta Udal Musika Bandaren zuzendari izendatu zutelako. Organista izateaz gain, Donostiako udal kontserbatorioan solfeo-, harmonia- eta organo-irakasle ere izan zen 1953 arte, eta Eliz Musikako Eskola Nagusiko kide ere bai. Txistuaren inguruko gauzekin harreman estua izan zuen: Txistularien elkarteko lehendakari izan zen 1955-1956 bitartean, eta baita elkarteko Ohorezko Kide ere. Hainbat ohore-domina eman zioten, horien artean Donostia Hiriko Zilarrezko Domina eta Alfontso Jakintsuaren Zaldun-gurutzea.


Obra asko konposatu zituen, nahiz eta zenbat partitura José Iturrioz edo Anastasio Yurrita ezizenekin sinatu zituen. Musika erlijioso asko egin zuen, bai korurako eta baita organorako ere. Tesoro Sacro Musical aldizkariaren bitartez, eliz doinu asko harmonizatzeko enkarguak bidaltzen zizkieten. Herri-doinu asko ere harmonizatu zituen, batez ere euskal doinuak. Txisturako ganbera-musikaren bilakaeran musikagile garrantzitsua izan zen, eta hiru txistuko banda klasikorako 90 bat obra egin zituen. Urteagaren funtsaren zati bat (500 partituratik gora) Errenteriako Eresbil artxiboan dago gordeta. Luis Urteaga Donostian hil zen 1960an.

Nace en Villafranca de Ordizia en 1882. Fue tiple en el coro parroquial de su localidad natal. Realiza sus primeros estudios musicales con los organistas locales Francisco Gárate, Lorenzo Martínez y Cándido Elorza. Continúa después estudiando armonía y composición con el maestro Rodoreda en San Sebastián. Motivado por ampliar su formación, en 1902 se traslada a Balmadesa para seguir estudiando contrapunto y fuga con el organista Martín Rodríguez, que acababa de conseguir la plaza de organista de la localidad. Terminada su formación, durante los siguientes años es organista en distintas localidades del territorio guipuzcoano. En 1904 gana por oposición la plaza de organista en Berástegui, pero al año siguiente pasa a ocupar la misma plaza en Zumaia, donde residirá cerca de 15 años. Allí desarrolla una importante labor musical, dirigiendo el coro parroquial y la banda municipal, además de componer, organizar conciertos, etc. En 1920 se traslada definitivamente a San Sebastián al lograr el cargo de organista de la Parroquia de San Vicente y el de director de la Banda de Música. Además de organista, fue profesor de solfeo, armonía y órgano en el Conservatorio Municipal de San Sebastián hasta 1953 y miembro de la Escuela Superior de Música Sagrada. Mantuvo una estrecha relación con el mundo del txistu, siendo presidente de la Asociación de Txistularis entre 1955 y 1956, así como Socio de Honor de la organización. Recibió varias condecoraciones, entre ellas la Medalla de Plata de la Ciudad de San Sebastián y la encomienda de Alfonso el Sabio.

Como compositor tiene un extenso catálogo de obras. Algunas de sus partituras aparecían firmadas con el seudónimo José Iturrioz o Anastasio Yurrita. Compuso numerosas obras de música religiosa, tanto coral como organística. A través de Tesoro Sacro Musical armonizó innumerables melodías religiosas que le fueron enviadas. También armonizó muchas melodías populares, especialmente vascas. Fue un compositor importante para la evolución de la música de cámara para txistu, siendo autor de cerca de 90 partituras compuestas para la banda clásica de tres txistus. Parte de su fondo se conserva en el archivo Eresbil de Rentería, que cuenta con más de 500 partituras del compositor.

Luis Urteaga falleció en San Sebastián en 1960.





ANTOLATZAILEAK ORGANIZAN



SUSTATZAILEAK PROMUEVEN



BABESLEAK PATROCINAN



LAGUNTZAILEAK COLABORAN

